

Familia prozesuak lege zibilen gatazkaren ikuspegitik: Gernika-Lumo udalerria*

NAHIA SAN MIGUEL FORURIA

Zuzenbidean graduatua

Deustuko Unibertsitatea

FECHA DE RECEPCIÓN / SARRERA-DATA: 31/12/2015

FECHA DE ADMISIÓN / ONARTZE-DATA: 20/03/2016

Laburpena: Lan honen muina Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila da eta horren aplikazioa familia prozesuei dagokienez. Hainbatez, Bizkaiko hirietan eta are zehatzago, Gernika-Lumo hiribilduan familiaren prozesuetan eta antolakuntzan historiatik datorren legeria zibil bakoitzaren ondorioak aztertuko dira. Gernika-Lumoko hiria, Bizkaiko beste 13 hirirekin batera, lege bikoiztasunaren lekuko esanguratsuak dira. Hauetan bi lege zibil aplikatzen ziren aldi berean, batetik gaztelako legea, hiri eta hirilurretan eta bestetik, Bizkaiko elizateetan, hau da, Lur lauan, Bizkaiko Forua. Ideia horretatik abiatuta ez zen batere erreza lege bakoitzaren aplikazio esparrua zehaztea, hori dela eta ikerketa lan honetan ikusiko denez toki batzuetan bi legeriak ziren aplikagarri eta horrek gatazkak eta segurtasun eza zekarren.

Gako hitzak: Bizkaiko forua, Gernika-Lumo, Lur laua, elizatea, familia prozesuak, 1959ko konpilazioa, gaztelako legea, 3/1992 Euskal Herriko Foru Zuzenbide zibilari buruzko legea.

* Lan honek Zuzenbidearen Euskal Akademiaren legelari gazteentzako Adrian Celaya 1. Saria eskuratu zuen. Hortaz, 5/2015 Legea, Euskal Zuzenbide Zibilari buruzkoa indarrean jarri aurrekoa da eta aipamenak aurreko legerari buruz egiten dira. Bere horretan argitaratzea erabaki da, kontuan hartuz Zuzenbide iragankorraren aldetik duen balioa eta egindako lanaren lekukotza gisa.

Los procesos de familia desde la perspectiva del conflicto de leyes: el caso de Gernika-Lumo

Resumen: La esencia de este trabajo es el Derecho Civil Vasco y los procesos de familia. De esta manera se van a analizar las consecuencias de la legislación civil en relación con los procedimientos y organización de la familia en las villas de Bizkaia y concretamente en el municipio de Gernika-Lumo. Gernika-Lumo junto a otros 13 municipios son un hecho sorprendente de la legislación civil de Bizkaia. Estas villas son testigos del dualismo legislativo, ya que se aplicaban dos leyes simultáneamente; estaba el derecho de Castilla que se aplicaba en las villas y en suelo urbano y por otra parte, se encontraba el Fuero de Bizkaia que se aplicaba en las anteiglesias, es decir, en Tierra Llana. Partiendo de esta idea no fue tarea fácil definir con exactitud el ámbito de aplicación de cada una de las leyes y en diversos casos fue hasta imposible y esto originaba conflictos de leyes e inseguridad jurídica.

Palabras clave: Fuero de Bizkaia, Gernika-Lumo, tierra llana, anteiglesia, procesos de familia, compilación de 1959, derecho de Castilla, ley 3/1992 de Derecho Civil Foral del País Vasco.

The family judicial procedures under the conflict-of-laws perspective: The Gernika-Lumo case.

Abstract: The essence of the present work is Basque Civil Law and family issues judicial procedures. The analyses of the impact of the civil regulation and the procedures on the family organization in the villages of Biscay, more precisely, in Gernika-Lumo municipality. Gernika-Lumo, along with other 13 municipalities are a surprising fact in Biscay civil regulation. These villages witness the regulation duality, as far as two different laws where applicable simultaneously; the Law of Castile, in force in the villages and the urban soil, and, in the other side, the Biscay Chartered Law, in force in the parishes, in the Countryside. These idea in mind, it was not ease task to exactly find the Law demarcation and, in some cases, impossible, what cause conflicts of law and insecurity.

Key words: Biscay Chartered Law, Gernika-Lumo, Countryside, parish, family issues procedure, 1959 Law Compilation, Castile Law, Act 3/1992, 1992-07-01, Basque Civil Law Charter.

AURKIBIDEA: 0. SARRERA. 1. GERNIKA-LUMO. 1.1 *Historia*. 1.2 *Kokapena*. 2. LEGE BIKOIZTASUNA: LEGE GATAZKA HISTORIAN ZEHAR 1959. URTERARTE. 2.1 *Gaztelako zuzenbide zibilaren eta Foru zuzenbidearen arteko gatazka*. 2.2 *Gernika-Lumoko udalerria*. 3. 1959ko BIZKAIKO FORU KONPILAZIOA. 3.1. *Historia aurrekariak*. 3.2 *1959ko Bizkaiko Foru Konpilazioa*. 4. EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN LEGEA (1992). 5. GERNIKA-LUMOKO UDALERRIA. 5.1 *Aurkezpena eta datuak*. 5.2 *Oinordetza, kapitulazioen eta tronkalitatearen azterketa*. 5.2.1 *Oinordetza*. 5.2.2 *Kapitulazioak*. 5.2.3 *Tronkalitatea*. 6. JURISPRUDENTZIA. 6.1. *1874. urteko ekainaren 8ko AGE*. 6.2. *1987. urteko apirilaren 7ko AGE*. 6.3. *1994. urteko apirilaren 18ko PEE*. 7. ONDORIOAK. 8. BIBLIOGRAFIA. 8.1 *Liburuak*. 8.2 *Webguneak*. 8.3 *Lege-testuak eta lege proposamenak*. 9. ERANSKINAK.

LABURDURAK

AGE	Auzitegi Gorenaren Epaia
EHAA	Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria
PEE	Probintzia Entzutegiaren Epaia

0. SARRERA

“*Foru*” esapidea izendapen generikoa izan eta, beraz, esanahi asko dituen hitz polisemikoa bada ere, hitz horrek adiera bakarra gorde du, jatorri erromatarrean duen etimologiari erreparatuz: *forum* delakoa edo justizia-lekua, gero latin arruntean *forus* bihurtuko dena. “*Foru*” hitza ordea, euskal lurraldeetan indarrean zen zuzenbidearen bildumak izendatzeko erabiltzen zen. Alde batetik, foru laburrak daude (hiri gutunak), erregeek eta jauntxoek hiri eta hiribilduei emandakoak, horiek birpopulatzeko asmoz, bertako biztanleei eskainitako pribilegioz osatuak. Fo-

rua, kasu honetan, aparteko araua da, berezia, toki jakin batean indarrean dagoen legearen euskarri juridikoa. Forua bigarren testuinguru batean, herri edo lurralde baten zuzenbidea jasotzen duen testua da. Kronologiari erreparatuz, aurrena foru laburrak agertzen dira hirietan, zinezko “fueroak” erregeak hiri bat sortzeko edo birpopulatzeko tresna gisa. Beranduagokoak dira berezko foruak aldiz, baina lurraldearen benetako zuzenbidearekin lotura estuagoa agertzen dute, herriaren ordezkariak idatzitakoak baitira, euren ohitura zaharrei sakon erreparatuta. Bigarren hori da lan honetan azalduko den Forua, beraz, Foruaren esanahi hori abiapuntu hartuta garatu da lan honen azterketa. Euskal zuzenbidearen berezitasuna ez da foruak egiteko moduan mamitzen, Gaztelako erreinuan eta beste lurralde-entitateetan egiten zen parekoa baitzen hori, ezpada, lehenengo ezaugarria bere eduki juridiko berezian dago eta, bigarrenik, are garrantzizkoagoa oraindik, lortu duen iraupenean, moldaketa batzuk izan arren, mendez mende gorde baita gaurdaino.

Esan beharra dago, bestela ere, lan honen muina Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila eta horren aplikazioa dela familia prozesuei dagokienez. Hainbatez, Bizkaiko hirietan eta are zehatzago, Gernika-Lumo hiribilduan familiaren prozesuetan eta antolakuntzan historiatik datorren legeria zibil bikoitzaren ondorioak aztertuko dira. Zuzenbide pribatua denez bezain batean, 1876ko uztailaren 21eko Legeak ez zituen Foruak guztiz ezabatu; besteak beste, Foru hauek, alegia, Bizkaiko 1526ko Foru Berriak, Aiarako 1373ko Foruak eta Nafarroako 1237ko Foru Orokorrak indarrean jarraitu zuten XX. mendeko bigarren erdira arte, Kode Zibilak aurreikusi zituen eranskinen proiektuen arrakasta ezaren islada gisa. Hala, Foruen araubide juridikoa Konpilazioek ordezkatu zuten zuzenbide pribatuaren aldetik, Euskal lurralde batzuen arau nagusi gisa, hain zuzen ere, 1959ko Bizkaiko eta Arabako Konpilazioak eta 1973ko Nafarroako Konpilazioak edo Foru Berriak. Gipuzkoa lege-testu berria hauen eremutik kanpo geratu zen, baita Arabako lurralde-eremu gehienak, Aiara kenduta, eta Bizkaiko hiribilduak eta Urduñako Hiriak ere, hiriguneen aldetik. Baztertutako esparru

hauetan Gaztelako zuzenbidea eta, gerora, Espainiako estatuarena, izango da aginduzkoa. Hala ere, Espainiako Konstituzioa indarrean jarri eta Euskal Autonomia Erkidegoko Legebiltzarrak 1992an Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilari Buruzko Legea¹ onartu zuen, egun indarrean dagoena; eta 1999an aurrekoari areagotu zitzaion Gipuzkoako Foru Zibilari buruzko legea². Egun, oraindik, ulergaitza suertatzen den arren, lege horren eremutik kanpo jarraitzen dute, Bizkaiko hiribilduen zentro historikoez eta, Gipuzkoako hiri barrutiak, Aiara kenduta beste Arabako lurralde osoak, Laudio eta Aramaio izan ezik, horiei Bizkaiko zuzenbidea baitzaie aplikagarri.

Ildo horretatik jarraituz, Bizkaian hiriak sortu aurretik, lurralde guztia usadio eta ohituren bidez erregulatzen zen, baina Bizkaiko jaunek hiriak sortu zituztenean, horiekin batera zuzenbide pribatuko bi legeria ezberdinen agerpena eman zen. Alde batetik, Gaztelako legea zegoen eta lege hori hirietan eta hiri-lurretan aplikatzen zen; beste aldetik, Bizkaiko Forua elizateetan, hau da, Lur Lauan³ aplikatzen zena. Ideia hauetatik abiatuta, ez zen batere erraza izan lege bakoitzaren aplikazio esparrua zehaztea; hori dela eta lan honetan ikusiko denez, toki batzuetan bi legeriak ziren aplikagarri eta horrek gatazkak eta segurtasunik eza nabarmena izatea ekarri zuen. Hartara, adibide ezin hobea da Gernika-Lumoko herria, hots hiribildu (Gernika) eta

¹ «3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzkoa», EHAA, 153. zk. 1992ko abuztuaren 7koa.

² «3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilari buruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilari dagokionez», EHAA, 249 zk., 1999ko abenduaren 30ekoa.

³ Lur Laua deritzo, 3/1992 Legearen 6. artikuluan agertzen den moduan “*Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hirietako eta Urduña ziutateko alde forugabekoa eta Bilboko gaur egungo udal mugarte osoa kanpoan utzita*”. Horrenbestez, Lur Laua, Bizkaia jaurreria zenetik Bizkaiko forua aplikatu beharrekoa den eremua, hain zuzen. Laudio eta Aramaio Bizkaiko Lur Lauaren zati dira, zuzenbide pribatuaren alorrean, bizkaitarrak izan eta Araban barruratu zirenean hori gorde zutelako nahiz eta egun Arabako udalerririk izan.

elizate (Lumo) baten batzetik datorren udalerria, bera eta Bizkaiko beste 13 hiriak baitira gorago esandakoaren lekuko esanguratsuak. Hasieratik bertatik Gernika hirian Gaztelako legea izan da aplikagarri bertako Fueroaren bidez, eta aldiz, Lumoko elizatean Bizkaiko Forua, baina ikusiko denez, autore guztiak ez daude legeria bikoiztasunarekin ados, batzuen ustez lege bakarra ezarri behar baitzen udalerrri osoan eta horrela aplikazioaren inguruan sortzen ziren zalantzak erro-errotik desagertuko ziren.

Lanaren garapenerako oinarritzko datak hartuko dira kontuan, besteak beste, lehendabizi, 1452an eman zen Bizkaiko Foru Zaharra, ondoren, hirurogeita hamalau urte geroago, 1526an, Bizkaiko Foru Berria, Bizkaiko Batzar Nagusiek aldarrikatu zutena. Lege-testu horiek Zuzenbide publikoaren eremuari dagozkion gaiak ere jasotzen zituzten eta horietariko batzuk hiribilduetan aplikatzen ziren; aldi berean, Zuzenbide pribatuari buruzkoak ere nabarmenak ziren. Ondoren 1630eko Konkordia etorri zen, dokumentu zeharo garrantzitsua legeria zibilaren ikuspuntutik, testu horren bidez hirien esku geratzen zelako baserri eta honi lotutako lurrei aplikatzen zitzaien legeria bera, euren ere aplika zitzaien eskatzea. Gerora eta mende luze baten ostean, 1959. urtean Bizkaiko eta Arabako Foru Konpilazioa eman zen, hiribildu eta Lur Lauaren arteko bereizketan oinarritzen zena; nolana ere, hiribilduetan Kode Zibila zen aginduzkoa, iraganari jarraiki eta azkenik, 1992. urtean Eusko Legebiltzarrak onetsitako Euskal Herriko Foru Zuzenbide Legea.

Egoera horrek aldatetak izan ditu, Gernika eta Lumo 1882. urtera arte bi udalerrri ezberdin izan zirelako. Hasteko, Gernika-Lumoren historiaren gaineko azalpena egingo da, gaia hobeto kokatzeko asmoz; ondoren, historian zehar 1959. urtera arte, Konpilazioa eman arte eta urte horretatik geroztik emandako lege-gatazken egoera eta historia azalduko dira, betiere, familia eta oinordetza prozesuetatik abiatuta. Lanari segida emateko eta kontuan hartuz, honekin frogatu nahi dena Gernika-Lumon begi bistako bikoiztasuna eman zela eta bi legeria zibilak gatazkan

egon direla urte luzeetan, Jabetza Erregistroan eta Gernika-Lumoko Udaletxeko artxiboan egindako azterketa sakon baten ondorioz legeria bikoiztasunaren gaineko hipotesia baieztatuko da, horretarako zenbait daturen, hau da, tronkalitatearen, oinordetzaren eta ezkontza-kontratuen gaineko azalpenak emango baitira. Bukatzeko, eta aurrekoaren jarraipen gisa 2012. urtean emandako Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilarren legearen eta Euskal Lege Zibilarren proposamenaren nondik norakoak azalduko dira. Lana egoki burutzeko asmoz, indarrean dagoen legeria zein doktrina-hausnarketa ugari erabiliko dira, edozein modutara ere, eta gai honen gaineko jurisprudentzia, berori baita frogarik irtenena azalduko denaren gainean.

1. GERNIKA-LUMO

1.1. Historia

Don Tello izeneko kondeak Gernikako hiribildua sortu zuen 1366ko apirilaren 28an⁴, Lumoko elizatearen lurretan eta Urduñan igorritako pribilegioaren bidez. Gernikako Batzarrean seigarren bozka eta jesarlekua zeukan hiribilduak. Gaur egun, Lumorekin batera udal-barruti bakarra osatzen du Gernika hiriaren Fueroan ikusi daitekeen moduan. Sorrerako hiri-gutunean hurrengoia esaten zaie bertako biztanleei:

«Haiades cumplidamente el fuero de Logroño et que vos mantengades por él noblemente et bien, en justicia et en derechos asi en homecillos, et en caloñas et en todos los buenos usos et costumbres como el fuero de Logroño manda»⁵.

⁴ Ikusi 9.2 eranskina.

⁵ DE LA PLAZA Y SALAZAR, C.: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 5. liburukia, 2006. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imp. Echevarría, 1899, 2. argitaraldia, I. tomoa, 60. or.

Jatorrian hiribildua, batetik, Bermeotik Durangorako bideek, eta bestetik, Bilbotik Elantxoberako nahiz Lekeitiorako bideek osaturiko bidegurutzean kokatuta zegoen. Horrenbestez, leku estrategikoan kokaturik zegoen; kokaleku horretatik, gainera, bide horiek ez ezik, berezko bide bat ere igarotzen zen, itsasadarrarena alegia; eta bertan, itsasontziak Susoko Porturaino iristen ziren. Sorrera horretan, hortaz, merkataritzari loturiko arrazoi batzuk ere egon ziren. Harrezkero, Gernikak euskal hiribilduaren ohiko hirigintza-tipologia hartu zuen; eta zenbait kale paralelok osatzen zuten: Goienkalek, Azokekalek, Artekalek eta Barrenkalek, baita zeharkako kale batek ere, Santa Mariak; halaber, hiriko barrutiaren muturretan kokaturiko elizak ere baziren.

XVIII. mendean, bestalde, ondoko herriarekin halako gatazka izan zen, Lumoko elizatearekin hain justu ere. Gatazka hori jurisdikzio mailako arazoek eragin zuten, eta horiek ez ziren 1882ra arte konpondu, bi herriak bildu eta Gernika-Lumo udalerria sortu zuten arte. Gernika eta Lumo unitate bakar moduan hartu ziren 1882tik aurrera baina aurretiaz ez zen horrela izan eta horren inguruko aipamena egiten da Gernikako sorrera-gutunean⁶:

«...Mando que hayades y tengades el Monasterio de San Pedro de Lumo con todos sus diezmos y pertenencias y derechos que al dicho Monasterio pertenecen para siempre jamás á vuestra vecindad, y que vos que dedes y paguedes de renta de cada año por el dicho Monasterio é iglesia 1800 maravedís,...».

Gernikako muino txiki batean Batzar-etxea eta Arbola daude. Euskaldunen arteko ohitura zaharra arbola baten azpian biltzea zen, batez ere haritz baten azpian, Bizkaia osoko interesak erabakitzeke (ohitura hori

⁶ DE LA PLAZA Y SALAZAR, C.: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 5. liburukia, 2006. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imp. Echevarría, 1899, 2. argitaraldia, II. tomoa, 79. or.

nahiko arrunta zen Erdi Aroko Europan). Bizkaiari dagokionez, lurralde administratibo bakoitzak (Merindadea) bere arbola zuen. Mendeen joan-etorrian, Gernikako arbolaren ingurukoa nagusitu zen, eta hori Lumoko elizatean zegoen; bertan, Gernikazarra izeneko ingurua zegoen eta azken honetan arbola eta baseliza zeuden. Arbola horren azpian, Bizkaiko legeak eztabaidatu eta onetsi ziren 1876ra arte; herri guztiek ordezkariak (batzarkideak) bidaltzen zituzten bilkuretara (Batzar Nagusiak). Bizkaiko Jaurerria Gaztelako erregearen babespeko bihurtu ondoren, Gaztelako erregeak Gernikara etortzeko ohitura eratu zuen, Bizkai-ko Foruak gordetzeko zina Arbolaren azpian egitera.

Historiari dagokionez, hasieran lur horiek aldaketarik gabe egon ziren XIX. mende hondarrean Gernika eta Lumo bat egin arte, urteak joan ziren eta 1943an garai hartako espainiar gobernuak Ajangiz herria Gernika-Lumori batzea erabaki zuen. 1967an, berriz Arratzu, Kortezubi, Forua, Murueta eta Nabarniz batu zitzaizkion.

1988tik aurrera kontrako prozesua gertatu zen, eta herriek Gernika-Lumotik banatzeari ekin zioten. Urte horretan Nabarniz, Murueta, Kortezubi eta Forua banandu ziren, 1990ean Ajangiz, eta 1993an Arratzu.

1.2. Kokapena

Gernika-Lumo Bizkaiko erdialdeko udalerria da, Busturialdean kokatua. Iparraldean Forua, Kortezubi eta Arratzu elizateak ditu mugakide; ekialdean Ajangiz elizatea; hegoaldean Muxika elizatea; eta mendebaldean Errigoiti elizatea. Herria Gernikako Itsasadarraren sarreran dago, Oka ibaiak itsasorako bidean sortutakoa, Urdaibaiko inguru naturalean.

2. LEGE BIKOIZTASUNA: LEGE GATAZKA HISTORIAN ZEHAR 1959.URTERARTE

2.1. *Gaztelako zuzenbide zibilaren eta Foru zuzenbidearen arteko gatazka*

Atal honen helburua da, Bizkaiko lurraldean edo zehatzago esanda, honen hiribilduetan ematen zen legeria bikoiztasuna edo bi erregimen juridiko zibilen nondik norakoak azaltzea. Goiz Erdi Aroan, Bizkaia hiru zatitan banatuta zegoen GREGORIO MONREALEN ustetan⁷: Bizkaia nuklearra, Enkarterriak eta Durangaldea. Hiru eremu horiek, hasieran bereiziak, XIII. mendetik aurrera Bizkaiko Jaurerria osatuko dute, administrazio-entitate bateratua, alegia. Gainera, aipatu beharra dago hiru eremu horietan, era berean, hiribilduak eta Lur Laua zeudela: hiru lurralde horietan badaude hiribilduak, erregeek emandako pribilegio edo hiri-gutunen bidez sortuak, eta Lur Laua, landa gunean edo nekazaritza-eremuan kokatua. Lehenengoek hiri-gutunak zituzten, eta Lur Lauak ere, eremu bakoitzean, bere interesak aldezteko erreakzio gisa, lege bihurtu zuen bere Zuzenbide pribatua, Batzar Nagusien bitartez. Horrela, Durangok bere forua izan zuen, “Durangoko Forua” data ezezagunekoa, baina autore gehienek XIV. mendean kokatzen dute, Aiarakoa bezala; Enkarterriek berea, “Avellanedako Forua” (1394) eta, geroago, “Enkarterriko Foru” berriztatua (1505), eta Bizkaiak, ahaltu eta garrantzitsuena, berea, “Bizkaiko Foru Zaharra” (1452). Hiru foruak aldi berean egongo dira indarrean, baina bakoitza lurralde-eremu batean. Izan ere, nahiz eta Bizkaia izeneko jaurerria osatu hirurek XIII. mendetik aurrera (Gaztelaren Koroaren barnean) ordenamendu-aniztasuna mantendu eta errespetatuko da. Bizkaiko Foru Zaharra Bizkaiko Lur Lauan aplikatzen zen, eta Durangaldekoa eta Enkarterrietakoa, eremu horietako Lur Lauan, era

⁷ JADO Y VENTADES, R.: *Derecho Civil de Vizcaya*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 1. liburukia, 2004. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imprenta y Encuadernación de la Casa de Misericordia, 1923, 2. argitaraldia, 21. or.

berean. Hiribilduak, berriz, erregearen interesen zerbitzuetara sortu ziren (merkataritzako eta ekonomiako interesak, politikoez gain), eta haren pribilegioei esker eraiki ziren. Gaztelako Zuzenbidea aplikatuko zitzairen. Horrenbestez, sartu ziren Alcalako Ordenamendua (1348) eta, gero, Toroko Legeak (1505) Bizkaian, Araban eta Gipuzkoako lurraldeetan. Hiribilduek Gaztelako Zuzenbidea izan zuten oinarri, eta Lur Lauak aipatutako foruetan jasotako ohiturazko zuzenbidea. Erdi Aroan hasi zen, beraz, egun oraindik indarrean dagoen ezberdintasun juridikoaren arrazoia. Hirurogeita hamalau urte geroago, 1526an, Bizkaiko Foru Berria aldarrikatu zuten Bizkaiko Batzar Nagusiek. Lege-testu horrek Zuzenbide publikoaren eremuari dagozkion gaiak jasotzen zituen eta horietariko batzuk ere hiribilduetan aplikatzen ziren, baita Zuzenbide pribatuari buruzkoak ere. Azken horiek soilik Bizkaiko Lur Lauan aplikatuko dira, ez hiribilduetan. Ikus daitekeenez, banaketak bere horretan jarraitzen du: hiribilduetan Gaztelako ordenamendu juridikoa dago indarrean, eta lur lauoko biztanleen harreman pribatuak, aldiz, ohiturazko Zuzenbidearen bidez arautzen dira. Testuan, hala ere, Gaztelako Erreinuko unibertsi-tateetan ikasitako juristen eragina nabarmena da, Gaztelako ordenamenduaren elementu batzuk barneratzen baitituzte.

Bizkaiko bilakaera historikoan erabateko eragina izan zuen XII. mendetik XIV. mendera bitartean sortutako hiribilduak. Hiribildu hauetan foru zuzenbidea ez zen lege ezargarria eta horren ondorioz, hiribildu horietako batzuei Logroñoko Fueroa, hau da, bertako hiri-gutuna aplikatzen hasi zitzairen. Gizaldien poderioz Fuero horiek bat egin zuten Gaztelako zuzenbidearekin, eta horrek Bizkaiko lurraldean bi legeria ezberdinen arteko gatazka ekarri zuen, legeriaz ibiliaren aplikazioari zegokionez. Hortaz, hirien sorrerak bi legeria ezberdin agertzea ekarri zuen:

- a) Foru Zuzenbidea, Bizkaia osoan aplikagarri, hirietan izan ezik.
- b) Gaztelako legeria. Hirien hirigunean eta hiriguneetako biztanleei aplikatzen zitzaiena.

Urteak aurrera joan ahala, hiriguneek euren lurralde mugak hedatu zituzten eta horren ondorioz, hiriguneak zabalduz joan ziren landa lurretarantz, horrek, aldi berean, Gaztelako zuzenbidearen hedadura ekarri zuen eta foru zuzenbidearen deserrotzea.

Bilakaera historikoaren barruan aipatzekoa da 1630. urtean sinatutako *Escrito de Unión y Concordia* delakoa. Horren bidez, aurreko urteetan hiriguneen eta Lur Lauaren arteko gatazkak desagerraraztea lortu nahi zen. Hori eskuratzeko asmoz, Bizkaiko Jaurerria osatzen zutenen esku geratzen zen hiriguneetan zuzenbide foralaren aplikazioa onartzea edo ez. Beraz, 71 elizate eta 20 hirigunek eta Urduñako hiriak hurrengo idatzia sinatu zuten eta honen I. kapituluan zera dio:

«Que las villas y ciudades venga a esta unión en el estado en que se hallan en sus gobiernos particulares, gobernándose como hasta aquí y con las mismas leyes; y que si alguna de las villas y ciudades quisiere dejar alguna ley de las que ha tenido y tomar otras de que usa el Señorío, pidiendo al Señorío en junta general haga las leyes que así pidieren, conformándose con las del Fuero, lo hay de hacer»⁸.

Mende batzuk geroago, DE LA PLAZA bere lanean⁹, Konkordian emandako eskubideaz baliatu ziren lau hirien inguruan mintzatzen da, besteak beste, Elorrio, Bermeo, Villaro eta Ochandiano. Hortaz, DE LA PLAZAREN helburua ez zen bi legerien aplikazio esparrua zehaztea soilik, izatez harago zihuan, testu horrek zehatz-mehatz ezarri nahi baitzituen lurralde esparru bakoitzaren mugak. ALLENDE SALAZAR legelari gernikarrak¹⁰, 1879. urtean legeria bikoiztasun hau ezohiko, kaltegarri eta uler-

⁸ CELAYA IBARRA, A.: *El derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 7. liburukia, 2007, 191.or.

⁹ DE LA PLAZA Y SALAZAR, C.: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 5. liburukia, 2006. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imp. Echevarría, 1899, 2. argitaraldia, I. tomoa, 73-95. orr.

gaitz ikusten zuen eta aldi berean, arlo zibilean deszentralizazioaren aurka agertzen zen, bere iritziz egoera honi aurre egiteko irtenbidea bost kode ezberdin sortzea baitzen, Gaztelarako, Aragoirako, Kataluniarako, Nafarroarako eta azkena Bizkairako. Allenderen ustetan, Foru Zuzenbidea Bizkaia osoan indarrean gorde behar zen. Jurista honen iritziz hiriek 1630eko Konkordia oinarri hartuta, Gorte Nagusiei eskatu behar zien elizateekin parekatzea eta hortik aurrera 1526ko Forua aplikatzea.

Hona hemen haren hitzak:

«Hay finalmente otro dualismo mucho más extraño, mucho más incomprendible, y mucho más raro, puesto que no conocemos de él más que un solo ejemplo en el mucho, y es el dualismo de la legislación civil de Vizcaya. No consiste éste en la simultaneidad de dos cuerpos legales, ni en que haya en un mismo pueblo sujetos que se rijan por la legislación común, y otros por un derecho privilegiado. No estriba tampoco este dualismo en diferencias en el orden civil entre la región septentrional y la meridional de Vizcaya, o entre la oriental y la occidental. La diversidad de legislación es

¹⁰ AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, J.: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia*. Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, 2007, I. liburukia, 332-342. orr.: ALLENDE SALAZAR MUÑOZ DE SALAZAR, Ángel. (1854-1885) Nació el 21 de septiembre de 1854 en la Anteiglesia de Luno. Inició sus estudios en el Instituto de Bilbao en 1869. De ahí paso a la Facultad de Derecho de la Universidad de Vitoria en el curso 1869 a 1870, ingresando después en la Universidad Central de Madrid para continuar sus estudios a partir del segundo curso (...). Dentro de su trayectoria jurídica se incorporó como abogado al Ilustre Colegio de Madrid, fue destacada el papel jugado por Allende Salazar en la Academia Matritense de Jurisprudencia y Legislación en la que ingresó en noviembre de 1871. Publicó varios trabajos sobre temas relativos a la legislación foral vasca poco después de la Ley Abolitoria de los Fueros de 1876 y en el seno del apasionado debate surgido en torno a la aplicación de esta Ley. Rechazaba las tendencias centralizadoras promovidas por esta corriente política, cuya máxima expresión era el Código Civil uniforme para todo España, y propuso un punto medio que respetase la diferencias legislativas existentes en España adaptándolas a los nuevos tiempos. Proponiendo más adelante, desde su defensa de las legislaciones forales, que se creara un derecho civil español que recogiera el espíritu de estas leyes e integrara las diferentes realidades legislativas españolas «dándoles una nueva forma y hasta un lenguaje propio de nuestro siglo [...] evitando al mismo tiempo contradicciones y antinomias que desaparecerían al borrar nuestros Códigos...».

municipal, descansa en las diferencias de categoría de los pueblos del antiguo Señorío. En una palabra, en Vizcaya los municipios que reciben el nombre de Villas se rigen por un derecho, el de Castilla, y los que se denominan Anteiglesias obedecen á otro distinto, que es el foral, el del Fuero de Vizcaya de 1526»; «No hay por tanto razón alguna de diferencia entre las Villas y las Anteiglesias, en atención al número de sus habitantes. No hay tampoco en lo que se refiere á la naturaleza de la propiedad, pues no siempre en las Anteiglesias predomina la propiedad rústica y en las villas la urbana»; «Y si no hay ninguna razón filosófica que justifique tal dualismo, tampoco la historia de Vizcaya puede servir de pretexto para que continúe este fatal antagonismo. Durante muchos siglos los territorios en que se encuentran hoy situadas las Villas se rigieron por el fuero general de la tierra llana. Solo durante corto tiempo obedecieron unos y otros pueblos á distinta legislación; y la Concordia de 1630 bien claramente indica el bello ideal de los jurisconsultos vizcaínos en tal capital asunto»; «Finalmente, ni siquiera razones de conveniencia abonan estas diferencias en el Derecho civil de Vizcaya. Por el contrario; además de absurdo, es sumamente perjudicial y la lugar a mil confusiones y antinomias el que los mismos actos de un ciudadano se rijan por distintas leyes, según el lugar en que se halle»; «... sería un extremo irregular y expuesto á continuos sinsabores el que dentro de una misma villa, en una misma calle y acaso en dos casas contiguas, rigiese distinta legislación, tanto civil como económica, y que de mudarse de una á la otra dependiese, por ejemplo, el poder ó no desheredar á los hijos, medida grave que no puede adoptarse por las leyes de Castilla sin justa causa, y que según los Fueros de Vizcaya puede llevarse á cabo libremente hasta por medio de la preterición¹¹».

Horren harira, bikoitzasun honek zehaztasun eza sortzen zuen hiribil-
duen barnean eta aldi berean segurtasun juridiko eza zekarren bertako
herritarrentzat.

¹¹ ALLENDE SALAZAR, A.: "El Dualismo en la Legislación Civil de Vizcaya". In Celaya Ibarra, A.: *El Derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil*. Bilbao: Academia Vasca de Derecho/ Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco/Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 7. lib., 2007. 185-197 orr.

XIX. mendearen bigarren erdialdean eta XX. mendearen lehengo erdialdean, egoerak arazo ugari ekarri zituen, bat egiteak, elizateen gehitzeak, elizate batzuk edo horien auzo batzuk hiriguneetara gehitu ziren eta aldi berean desanexioak ere eman ziren, eta horien artean hurrengoak nabarmendu ziren: Bilbo, Abando, Begoña eta Deusturekin; Gernika Lumo eta Ajangizekin; Markina Xemeinekin eta Durango Iurretarekin. Aldakuntza hauek, ondorioak ekarri zituzten lurralde hauetan zein zen lege zibil aplikagarria zehazteko orduan. Baina hiriguneetara gehitu ziren lurralde gehienek euren foru zuzenbidea mantendu zuten.

DE LA PLAZA ohartarazi zen, Gernika-Lumon ematen zen lege-gatazka beste hiri batzuetan ere ematen zela, hala nola, Bilbon, Abando eta Begoña elizateak lehengoari batu zitzaizkionean. Horri dagokionez DE LA PLAZAK hurrengo idazten zuen:

«Lo absurdo del estado actual de cosas, ya que citamos el nombre de esta invicta villa, se demuestra con sólo tener en cuenta que la frase vulgarísima de Sí, no y que sé yo, es la mejor, más exacta, la única contestación que puede darse a si rige el Fuero de Vizcaya en el territorio de aquella (...) Todo esto debe desaparecer, hay que evitar tantas dudas y pleitos (...) preferiríamos una sola ley para Vizcaya entera; pero reconocemos que desgraciadamente no es fácil lograrlo; por lo cual, ya que no tengamos unidad de la legislación civil en todo el Señorío, nos conformamos con que se consiga dentro de cada municipio¹²».

RUIZ SALASEK 1956. urtean hurrengo adierazi zuen, Bilboko gunebatzuen inguruan: «uno puede acostarse en zona aforada y despertar en zona no aforada por el simple hecho de haber cambiado de postura durante el sueño»¹³.

¹² DE LA PLAZA Y SALAZAR, C.: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 5. liburukia, 2006. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imp. Echevarría, 1899, 2. argitaraldia, I. tomoa, 246-247. orr.

¹³ RUIZ SALAS, J. M.: *El derecho civil foral de Vizcaya y la época actual*. Zumarraga, 1956. 6. zk., 11-13 orr.

XX. mende hasieran eta gaur egun ere oraindik pil-pilean dagoen gaietako bat, Foru Zuzenbidearen aplikazio esparruari dagokiona da, oso eztabaidatsua izan den gaia da eta oraindik ere iritzi ezberdinak daude aplikazio esparrua zehazterako orduan. Egoera honek hainbat auzi eragin ditu eta JADok hauen historia bildu zuen. Aldi berean, DE LA PLAZAK 1895an, “*Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*” liburua argitaratu zuen eta liburu oso lagungarria izan zen 1899. urtean Bizkaiko eta Arabako Bartzordearentzat bi lurralde horientzako Kode Zibilaren eranskinaren proiektua egiteko orduan. DE LA PLAZAK aurkeztutako testuan, tesi garrantzitsua zegoen eta JADOK gogor egin zuen tesi honen aurka. DE LA PLAZAREN ustetan, hiriguneetan Gaztelako zuzenbidea aplikatzen zen. Beraz, honen ustetan ez zegoen inolako lege bikoiztasunik hiriguneen eta gainontzeko lurraldearen artean, bertan foru zuzenbidea aplikatzen baitzen. Hortaz, aurrekoa oinarri hartuta, ez zen inolako ezberdintasunik ematen hiriguneen eta landa lurren artean. JADOREN tesia ordea, guztiz kontrakoa zen, eta biek aldi berean haien tesiak defendatzen zituzten arrazoizko argudioak erabiliz. JADOREN azken iritzia hurrengoa zen:

«...Hay que convenir en que debe establecerse una distinción o separación entre las villas propiamente dichas y los términos o territorio jurisdiccional que se les concedía que se componía de caserías diseminadas, o, como diríamos hoy, entre el caso urbano y la parte rural, y si no hay fundamento alguno para establecer esa distinción ya que se sienta el principio “admitanse las consecuencias y si las villas perdieron el Fuero al ser pobladas en tosa su jurisdicción y territorio” tendremos que admitir que lo perdieron las anteiglesias de Abando, Deusto y Begoña, porque el territorio de esas anteiglesias estaba enclavado dentro de los extensos límites concedidos a la villa de Bilbao en su carta puebla; Que también lo perdieron las anteiglesias de Luno, Forua... etc.¹⁴».

¹⁴ JADO Y VENTADES, R.: *Derecho Civil de Vizcaya*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 1. liburukia, 2004. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imprenta y Encuadernación de la Casa de Misericordia, 1923, 2. argitaraldia, orr. 23.

DE LA PLAZAREN tesiak guztiz ezeztatzen du Foruaren aplikazioa hiriguneetan eta honen kanpoan. JADOREN lehenengo lana aurkeztu ondoren, lehen aipaturiko Batzordeak ondu zuen proiektua ezagutu zen eta proiektu horren 2. artikulua DE LA PLAZAREN tesia jarraitzen zuen. Horrenbeste, JADOK bere bigarren edizioan, bere okerra onartu zuen eta aurreko argitaraldian idatzitakoa ezabatu zuen, bere iritziari tinko eutsi bazion ere:

«Hemos de advertir, dice, que en las villas, por regla general no sólo se rige por las leyes del Fuero el territorio de Tierra Llana que a algunas de ellas les ha sido anexionado en diversas épocas, sino que también rigen esas leyes en la parte rural o caserías que quedaron comprendidas en los términos jurisdiccionales que se les señaló en las cartas de fundación; quieren decirse que los fundadores de esas caserías observan las leyes del Fuero y no el Derecho común, mientras que las del casco de las villas o zona urbana se rigen por este último, con algunas excepciones que haremos notar. Tal es el hecho sin que entremos aquí a exponer las causas¹⁵».

2.2 Gernika-Lumoko udalerria

Esan bezalaxe, Bizkaiko Jaurerriari dagokionez, Forua hurrengo haue-tan aplikatzen zen:

1.- Antzina Bizkaiko jaurerri osoan aplikatzen zen.

2.-Hiriak eta hiribilduak sortu ahala, horietan bakoitzaren “Fueroa” zen aplikagarri.

Bizkaiko Jaurerria zazpi merindadek osatzen zuten, *Durango, Busturia, Uribe, Arratia, Marquina, Zornoza eta Bediakoak*. Busturiko merindadeak Lumoko elizatea barneratzen zuen. Ondoren HORMAECHEA jaunak “*Leyes civiles de Vizcaya*” lanean, Lumoko elizatea Busturiko merindadetik kanpo utzi zuen elizate horrek Gernikako hiriarekin bat egin zuelako, eta ondorioz hiribildu bezala kontutzat hartzen zelako¹⁶.

¹⁵ *Ibidem*, orr. 24.

¹⁶ HORMAECHE, R.: *Leyes civiles de Vizcaya*. Pamplona: Analecta, 2002. Faksimile-edizioa, Bilbo: Tipografía Católica de Jose Astuy, 1891.

Bizkaian hiriak sortzea, eta batez ere Gernikako hiria sortzea Erdi Aroko gertaera garrantzitsuenetako bat da, honek ekarri zituen eragin juridiko-politiko-ekonomiko eta sozialengatik. Don Tellok Urduñan sinatutako Gernikako jatorrizko hiri-gutunera pribilegio, salbuespen eta eskumen batzuk daude batuta, banakakoak zein taldekoak eta horiek guztiek Logroño-ko Forua daukate oinarri. Sinatutako jatorrizko testuan zeuden pribilegio edo abantailek hiritarrak jauntxoan menpekotasunik aske geratuko zirela zioten eta horien aldeko berme pertsonal batzuk ezartzen zituen, hala nola, merkataritza askatasuna eta ordura arte zehazturik ez zeuden abantaila ekonomiko batzuk ere. Hiri gutun horretan aukera ematen zitzaion Gernikari Lumoko San Pedro monasterioa eta bertako jabetza guztiak errentan hartzeko, urtean 1800 marairen¹⁷ truke. Mecetarrak¹⁸ Lumoko elizateko nagusiak ziren. Hortaz, Gernikako hiri-gutunean emandako abantailak ez zituzten batere gustuko izan; hainbatez, Gernikako portuaren gaineko eskubideak, aurretiaz Lumorenak izan zirenak galtzeaz gain, Lumoko San Pedro monasterioko jabe izateagatik lortzen zituen hamarrenak eta eskubideak ere galduko zituzten. Mecetako Juan Sanchezek hiri berria ez sortzeko ahalegin guztiak egin zituen baina alperrekoak izan ziren.

XVI. mendeari dagokionez, Gernikak eta Lumok auzi luzeak izan zituzten bi udalerrien lurralde eta jurisdikzio mugak zirela eta, izan ere, hiri-gutunaz batera bereganatutako mailari eutsi nahi zion Gernikak eta Lumoko elizateak ordea, sekulakoak egin zituen Don Tellok kendutako lurak berriz eskuratzeko. XVI. mendearen bigarren erdialdean, Gernika zati-zati eginda geratu zen suteek eta elizatearen kontrako auzien galerak astinduta, gainera 1599an Lumok lehengo lurralde ia osoa berreskuratu zuen. 1615^a ezkerro, Gernikako hiriak elizate izateko asmoa azaldu zuen, honako agirian jaso zen moduan:

¹⁷ Marai, gaztelaniaz: maravedí, orduko garaiko moneta zen.

¹⁸ Mecetarrak, Lumoko elizateko nagusiak ziren.

“Hiria sortu zenetik Lumoko elizatearen jurisdikzioaren menpekoa zela eta auzi asko izan zirela alkate arruntaren eta jaurreriko teniente nagusiaren artean. Gainera herritarrak galdu zituen eta izan ere, 1615. urtea ezkerro, Gernikako hiribilduak elizate izateko amoa azaldu zuen, honako agiria jaso izan zenez: «uria sortu zanetik bertatik, Lumoko elizatearen jurisdikzioaren menpekoa zala-eta, auzi asko izan dira alkate arruntaren eta jaurreriko teniente nagusiaren artean. Gainera, herritarrak galdu ditu, eta gaur 46 biztanle baino ez daukaz, lehen asko be gehiago euki arren (...). Agirian bertan konponbide ematen zitzaion arazoari “elizate izan daitela infanzoitzearen jurisdikzioaren pekora. Halan, lehen, arazoak zirala-eta, kanpoan bizi ziran lagun asko bertara aldatuko litzatekez, eta ostera be jentea bihurtuko litzateke. Hori oso erabilgarria litzateke Berorren Maiestatearen koroarentzat”¹⁹.

Halaber, XIX. mendean Gernikako hiriaren eta Lumoko elizatearen historia erakunde banandu gisa bukatzeaz zegoen, baita elkarren aurkako auzi amaigabeak ere. Hortaz, 1882ko urtarrilaren 8an hiribilduaren eta elizatearen arteko Batasun Legea sinatu zen. 1882ko urtarrilaren 8an Gortea liberele emandako legearen bitartez Gernikako hiribilduak atzean utzi zuen aspalditik bilatu izan zuena, hau da, haren jurisdikzioaren mugak zabaltzea Lumoko elizaterantz. 1864. urtean hiribilduak bere lehen anexion-espeditentea aurkeztu zuen eta Batzar Nagusiek hura ezetsi zuten, aurretiaz zehaztuta zegoelako hiriaren eta elizatearen arteko akordioa beharrezko ezaugarria zelako ekimen hori aurrera eraman ahal izateko.

Urte batzuk pasatu ondoren, kontuak asko aldatu ziren azpian irakurri daitekeenez:

1. art.- *Bizkaiko probintziako Gernikako hiribildua eta Lumoko elizatea udalerri bakarria izango dira lege hau indarrean jartzean eta Gernika eta Lumoko udalerri izena hartuko du.*

¹⁹ ENSUNZA ARRIEN, M.: *Bizkaiko Herrien Monografiak*. Bilbo: Bizkaiko Foru Aldundia, 2003, 37. or. (testu horren jatorria gaztelaniaz, itzulpena liburuaren egilearena da).

2. art.- *Udaleri berria osatzen duten herri bien zuzenbide zibilarren inguruan lege honek ez du inolako aldaketarik zehazten, horregatik, aurrerantzean ere foru zuzenbidea aplikatuko da Lumon eta zuzenbide orokorra Gernikan*²⁰.

Hau da, 1881eko abenduaren 3an ALLENDE SALAZAR diputatuak Madrilgo Gorteei lege proposamena aurkeztu zien. Gerora, abenduaren 19ko saioan, legea defendatu zuen, lege, ekonomia eta bizikidetzara zioiak azalduz. Nahiko polemikoa izan zen hiribilduak elizatea bereganatzea, lumotarren ustetan galera handiak ekarriko baitzituen honek, behinlako elizatearen lurraldea zatituta hiribildua sortzeak eragindakoaz gain. Bi udal-erakundeak batuta, elizateak Batzar Nagusietan zeukan bozka galdu zuen hasiera-hasieratik seigarren jarlekua izan arren. Bestalde, Lumok horren kontra egin arren, Gernikak bidalitako gutunean herri bietako 600 herritarrek emandako 301 sinadurek alde zituela, batzordeak aldeko txostena aurkeztu zuen abenduaren 20an; ondoren, hilaren 22an Diputatuen Kongresuak onetsi egin zuen eta Senatura bidali zuen. Hala, hurrengo urteko urtarrilaren 8an legea onartu zen.

ALLENDE SALAZAR-ek aurkeztutako proiektuan argi eta garbi ikus zitezkeen ez zela inolako aipamenik egiten zentsupeko etxeei buruz, are gehiago hiri honek 1807an aurkeztutako dokumentu batean ere ez ziren zehazten zeintzuk ziren etxe horiek ezta zein zen ordaindu beharreko errolda. Etxaguntza hauei Bizkaiko Foru Berriaren bigarren legearen XXXVI. Titulua aplikatzen zitzaien. Hainbestez, urtarrilaren 8ko legearen 2. artikuluari erreparatuz ez zaio inolako aldaketarik ezartzen Gernika hirian eta Lumoko elizatean aplikagarri den zuzenbide zibilar eta hortaz, bertako zentsupeko etxeek aplikagarri duten legeek ematen dizkieten eskubideak mantenduko dituzte betiere, auzi kasuan etxeguntzek duten izaera frogatzen duten heinean.

²⁰ *Ibidem*, 46. orr. (testu horren jatorria gaztelaniaz, itzulpena liburuaren egilearena da).

“*Proyecto de Articulado*” horretan agertzen zen moduan²¹:

Art. 1º El Fuero de Vizcaya en lo civil rige íntegramente en todo el territorio del Señorío, hoy provincia de aquel nombre, con las excepciones que expresamente se mencionan en los artículos siguientes.

Art. 2º. Rige la ley general del reino como única y exclusiva ley en toda la jurisdicción de los términos municipales formados por las ocho villas de Durango, Ermua, Lanestosa, Lequeitio, Ondarroa, Plencia, Portugalete y Valmaseda y por la ciudad de Orduña.

Art. 3º Rigen simultáneamente como ley principal, no supletoria, las dos legislaciones, en la anteiglesia de Arbácegui y Guericáiz, en el conejo de Santurce, en el valle de Ceberio y en las villas de Bermeo, Bilbao, Elorrio, Guernica y Lumo, Larabezúa, Marquina, Miravallés, Munguia, Ochandiano, Rigoitia y Villaro.

Art. 4º En la aplicación de una y otra ley, en los catorce términos municipales que se citan en el artículo anterior, se observaran las reglas siguientes:

Gernika-Lumori dagokionez, aurrekoek bat egin baino lehen, Gernikako hiria osatzen zuten lurretan erreinuko lege orokorra aplikatzen zen eta Bizkaiko Forua ordea Lumoko elizatea osatzen zuten lurretan. Hiria-
ren jurisdikzio zibilean zeuden zentsupeko etxe eta etxaguntzei Bizkaiko Foru Berriaren XXXVI. Tituluko bigarren legea aplikatzen zitzaien. Gernika eta Lumok bat egiteak ez zuelako egoera hori aldatu, geroko gertaerak gorabehera.

²¹ DE LA PLAZA Y SALAZAR, C.: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 5. liburukia, 2006. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imp. Echevarría, 1899, 2. argitaraldia, I. tomoa, 216-217. orr.

3. 1959ko BIZKAIKO FORU KONPILAZIOA

3.1. *Historia aurrekariak*

Ia lau mendez egon zen indarrean 1526ko Foru Berria Bizkaiko Lur Lauan. XIX. mende amaieran Espainiako Kode Zibila aldarrikatu zenean, lurralde desberdinetako foru zuzenbide zibilen uzia berriro azaleratu zen. Historia horren arabera, 1888ko maiatzaren 11ko Oinarri Legeak bere 5. artikuluan²² zehazten zuen Kode Zibilak ez zuela inolako aldaketarik eragingo Foru Zuzenbidearen erregimenean eta hori dela eta, Foru Zuzenbidea aplikatuko zela lehendik halako zuzenbidea zuten probintzia eta lurraldeetan. Hau da, Kode Zibila probintzia eta lurralde horietan ordeztaille edo osagarri moduan erabiliko litzateke lege hutsunerik egonez gero hauek betetzeko asmoz. Lege honetan Gobernuari agindu batzuk ematen zitzaizkion eta horietako batean Kodifikazio Batzordeari zuzendutako lege proiektu batzuk aurkeztu beharra agertzen zen; lege proiektu horietan orain arte indarrean zeuden eta aurrerantzean ere beharrezkoak izango ziren foru instituzioak zehazteko agindua zegoen. 1889ko apirilaren 17ko Errege Dekretuak eginbehar hau burutuko zuten Batzorde bereziak izendatzeko premia argi uzten zuen eta urte bereko apirilaren 24ko Errege Dekretuaren bidez Bizkaiko eta Arabako Zuzenbide Zibil Foralaren aurreproiektua aurrera eramango zuen Batzordea eratu zen eta azken honek bere lana bukatutzat eman zuen 1900ko otsailaren 9an.

Argi eta garbi ikusten zen Bizkaiak eta Arabak bere lege foralak sistematizatuta izateko kode bat beharrezkoa zutela eta hori kontuan hartuz Probintzia Diputazioak eta Abokatuen Elkargoak, Batzordea eratuko zu-

²² ART. 5. CC “*Las provincias y territorios en que subsiste derecho foral, lo conservarán por ahora en toda su integridad, sin que sufra alteración su actual régimen jurídico por la publicación del Código, que registrará tan sólo como supletorio en defecto del que lo sea en cada una de aquellas por sus leyes especiales. El título preliminar del Código, en cuanto establezca los efectos de las leyes y de los estatutos y las reglas generales para su aplicación, será obligatorio en todas las provincias del Reino. También lo serán las disposiciones que se dicten para el desarrollo de la base 3.ª relativa a las formas del matrimonio*”.

ten kideak izendatu zituzten. Horien artean hurrengoak izan ziren izendatuak²³: Manuel Lecanda y Mendieta, Aureliano Galarza Menchaca, Bartolomé de Bolívar y Nicasio de Veriztain, Carlos de la Plaza eta Francisco Quintana. Ordea, Arabako herrialdearen aldetik, Eliodoro Ramírez Olano, Tomás de Salazar eta Francisco de Ayala.

Espainiako Kode Zibilari eranskinak egiteko Bizkaian eta Araban prestatu ziren bi proiektuak kontuan hartuz (1900 eta 1928), gerra osteko Zaragozako Biltzarrean (1947) Foru zuzenbide zibil horiek Konpilazioetara biltzea erabaki zen, gero Kode Zibilarekin bat egiteko asmotan. Hortik etorri zen lehena, 1959an izan zen, Bizkaia eta Arabako Konpilazio edo bilduma, Francoren garaikoa. Horrek ordeztu zuen 1526. urteko Foru Berria, 1900. eta 1928. urteetako Eranskin proiektuek aurrebiderik izan ez zutela oinarri hartuta. Konpilazioa, dena den, hiribildu eta Lur Lauaren arteko bereizketan oinarritzen da; alabaina, hiribilduetan Kode Zibila aplikatuko da, iraganari jarraiki.

Konpilazioak ia bi hamarkada indarrean zeramatzala, Espainiar Konstituzioa aldarrikatu zen 1978ko abenduaren 6an, eta, ikusi dugunez, 149.1.8 artikulua autonomia-erkidegoei haien “Foru Zuzenbide zibil berezia aldatzeko, kontserbatzeko eta garatzeko” eskumena ematen zien. Euskal Autonomia Erkidegoak eskumen hori onartu (Euskal Autonomia Erkidegoaren Estatutuaren 10.5 artikulua), eta 1992an, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilari buruzko Legea aldarrikatu zuen. Bizkaiaren kasuan, zehazki, hiribildu eta Lur Lauaren arteko bereizketak indarrean jarraiarazi zuen lege testu horrek.

²³ URRUTIA BADIOLA, A.: “Introducción y edición” de *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión especial de Codificación de Vizcaya* (1899-1900). Bilbo: Academia Vasca de Derecho/ Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2004. Edición facsímil de la edición de Bilbao: Arg. Provincial, 1902. La referencia de la constitución de la Comisión del nombramiento de vocales y del comienzo de sus sesiones se hallan recogidos en el acta de la primera sesión de la comisión, 9-15. orr.

Beraz, Konpilazioa indarrean egon zen Eusko Legebiltzarrak 3/1992 legea argitaratu arte, lege hori baita gaur egun ere indarrean dagoena. Aipatzekoa da, momentu honetan aurrera eraman nahi den proiektuaren xedea, Euskal Autonomia Erkidego osoan, hau da, bertako lurralde guztian eta herritar guztiei aplikatzeko modukoa den lege bat sortzea da.

3.2. 1959ko Bizkaiko Foru Konpilazioa

Espainiako Gorteek 1959ko uztailaren 29an, 42/1959 legea onartu zuten, Bizkaiko eta Arabako Foru Konpilazioa, hurrengo egunean Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, 1959ko abuztuaren 21an sartu zen indarrean. Hori dela eta, ordura arte lau mende baino gehiagotan indarrean izan ziren Bizkaiko Foruaren eta Aiarako Foruaren lege xedapenek indarra galdu zuten eta horrekin batera foru zibilaren azken aztarna desagertu zen. XIX. mendeko prozesuak Zuzenbide Publikoaren inguruko aldaketak ekarri zituen, lege berriak ordea Zuzenbide Pribatuaren zeukan eragina. Foru Konpilazioaren azken xedapenetatik lehenengoan erabilitako *“iuris continuatio”* formulak aukera ematen zuen aurreko zuzenbidea indargabetu gabe, hori ordezkatzeko.

“Todas las disposiciones civiles del Fuero de Vizcaya y del Fuero de Ayala quedan sustituidas por las contenidas en esta Compilacion”²⁴.

Konpilazioaren testuari erreparatuz eta honen 1. artikuluan ikusten denez:

1. artikulua: “Lege hau Bizkaiko Infanzonatu edo Lur Lauan aplikatuko da”.

Konpilazioak bere 2. artikuluan adierazten du zer ulertzen den Infanzonatu edo Lur Lautzaren kontzeptupean:

2. artikulua. “Bizkaiko Infanzonatu edo Lur Lauaren izenduraz gaur egungo Bizkaiko probintziak hartzen duen lurralde osoan

²⁴ Ley 42/1959, de 30 de julio sobre Compilación de Derecho Civil Foral de Vizcaya y Álava. (BOE, núm, 182, 31-VII-1959). 10358-10363 orr.

izendatzen da, salbu Bermeo, Durango, Ermua, Gernika eta Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina, Ondarroa, Portugaleta, Plentzia eta Balmaseda, hamabi hiriak, Urduñako ziutatea eta Bilboko udal mugarte osoa. Salbuetsitako lurralde honetan Kode Zibila izango da aplikagarri”.

Aipatutakoa kontuan hartuz, Gernika-Lumon, Kode Zibila da aplikatu beharreko legea. Halere, Konpilazioak bere 3. artikuluan “hiri” hitzaren esanahia edo definizioa zehazten du:

3. artikulua. “Aurreko artikuluan zerrendatutako hamabi hiri forugabeei dagokion izendurak beraien hiriguneetako egungo edo etorkizuneko perimetroko lurralde osoa hartzen du barru.

Hiri forugabeetako hiriguneen alboko soro-landa eta lurrak beraiei erantsiz at joko dira, Kode Zibila izango dutelarik aplikatu beharreko legedia, baserri bateko atalak izanik, nekazal ustiategiaren batasunari lotuak ez badira behintzat. Hurrengo hauek ere Kode Zibilaren erregulazioaren menpe geratuko dira:

- a) Beraien udal mugarteetan kokaturiko eraikuntza eta lurguneak, ustiategi industrialera zein berez baserriko erabilera edo ekintza ez diren zuzendutakoak edo eta baserri bateko lur sailak ez direnak.*
- b) Egungo nahiz etorkizuneko lurzoruen gaineko legeriaren arabera, ofizialki onartutako urbanizazio planek joak izanik, beraien udal mugartean lekuriko lurguneak”.*

Azkenik Konpilazioaren 4. artikuluari erreparatu behar zaio:

4. artikulua. “Bizkaiko udal mugarteetako muga aldatzeko administrazioek ez dute lurralde ukituei dagokien zuzenbide zibil aplikagarria aldaraziko”.

Beraz, aztertutako artikulua erreparatuz esan daiteke, legeen aplikazioari dagokionez, hiru aukera ezberdin agertzen direla:

1. Kode Zibila soilik aplikatzen den lurraldea: Bilbo.

2. Lege Bikoitzasuna ematen den lurraldea: Bermeo, Durango, Ermua, Gernika eta Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina, Ondarroa, Portugalete, Plentzia, Balmaseda eta Urduñako hiria.
3. Lurralde foruduna: beste guztiak.

Bada, nolana ere, Gernika-Lumo beste hirietatik bereizten duen daturik, 1959. urteko Bildumaren lorratza aintzat hartuta. Bilduma horrek Gernika eta Lumoko lurralde bitasuna desegin zuen, neurri handi batean eta Lumoko kaleko herritarrei zegokienez, auzotasun zibil foruduna kentzen zien, baldin eta Kode Zibilak ezarritako 10 urteko epearen barnean herritarrek ez bazuten auzotasun foruduna gordetzeko nahia Erregistro Zibilean inskribatzen. Beste inon ez bezalaxe, Gernika-Lumoko udalak 1969. urteko uztailaren 21a baino lehenago, kalez kale zuzendutako bandoa kaleratu zuen, herritarrei adieraziz Erregistro Zibilean inskribatu ez ezik, data horretatik aurrera euren auzotasun foruduna galdu eta Kode Zibila izango zutela aginduzkoa. Deia, esan gabe doa, guztiz arrakastatsua izan zela eta hainbat herritarrek foru zuzenbidearen alde egin zutela²⁵, egun ere, nabarmena dena Gernikako familia eta oinordeza prozesu eta ekitaldi juridikoetan²⁶.

4. EUSKAL HERRIKO FORU ZUZENBIDE ZIBILAREN LEGEA (1992)

Zenbait proiekturen ondorioa da 1992ko legea, hainbat legetarik egindako proiektuen batuketara, hain zuzen ere. Horrela, Bizkaiko Fo-

²⁵ Erregistro Zibilean egindako azterketaren ondorioz, ondorioztatu da, 1959. urtetik 1969. urtera arte 233 pertsonak sinatu zutela foru auzotasuna mantentzeko idazkia.

²⁶ Ahozko lekukotasuna Conchi Gorriti Arruti gernikarrengandik jasoa (jasotze-data. 2014-05-02).

ru Aldundiaren eskaera oinarri hartuta, 1988ko ekainaren 17an batzorde bat osatu zen, bizkaitar legelarien batzordea. Talde honen erronka, proiektu pribatu horiek guztiek testu bakar batean bateratzea zen. Lan horren fruitua Bizkaiko Aldundiak onartu zuen 1991ko urtarrilaren 22an, eta, onartu ondoren, Bizkaiko Batzar Nagusiei bidali zien Gasteizko Legebiltzarrerara igor zezaten lege proposamen gisa. Prozedura horrek, bistan denez, Arabako Foru Aldundiaren erreakzioa ekarri zuen; hainbatez, ez zen Bizkaiko Foru Zuzenbidea soilik eguneratu behar, Arabakoak ere beharizan berdinak baitzeuzkan. Eusko Legebiltzarrak, ordea, bi testuak aztertu eta gero, bi eskaera egin zizkien bi batzordeei. Alde batetik, bi lurraldeentzat iturri erkideak ezartzea, ez bakoitzak bereak (biontzat berberak, baizik). Bestalde, Gipuzkoako Zuzenbide zibila eguneratzeari buruzko testu bat idazteko eskaera egin zien. Ondorioz, bere sorrerarekin erabat koherentea izanda, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzko Legea, 3/1992 uztailaren 1ekoa, hiru liburutan zatitua agertzen da: “*Bizkaiko Foru Zibila*”, “*Arabako Foru Zibila*” eta “*Gipuzkoako Foru Zibila*”, hain zuzen ere.

1959. urteko Bildumak nahaste handiagoa sortu zuen bere 2. eta 3. ataletako arau korapilatsuekin, eta harrezkero zail egiten da, hiriguneetatik kanpo, zein den lurralde foruduna eta zein ez zehaztea. Gainera, Bildumaren sistemak alde forudunen eta forugabekoen lurraldeak behin eta berriro aldatzen ditu. Hori dela eta, eta Konstituzioaren 9.3. atalak eskatzen duen segurtasun juridikoa aintzakotzat hartuta, arau zehatzagoak egin beharra zegoen. Arazo hau konpontzeko asmoz, 1992ko legeak 5. atalean lurralde ezarpen eremua zehaztu zuen eta ondoren 6. atalean, Lur Laua zeri deritzon finkatu zuen. Hurrengo irizpidea erabili zen Foru-Lege horren 6., 7. eta 8. atalak eta Azken Erabakietako lehenengoa idaztean, Autonomia Estatutuaren 10. atalean aitortutakoa, hau da, aurrekoak legegintzarako baimenean oinarritzen direla eta forudun lurraldea zein den ondo zehaztu nahi dutela.

5. atala. «Foru honek, Bizkaiko Lurraldeko berezko legeria zibila denez, bere osotasunean izango du indarra Lur Lauan²⁷».

6. atala. «Lur Laua deritzo, Bizkaiko Lurralde osoari, Balmaseda, Bermeo, Durango, Ermua, Gernika-Lumo, Lanestosa, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Otxandio, Portugalete eta Plentzia hirietako eta Urduña ziuatateko alde forugabekoa eta Bilboko gaur egungo udal mugarte osoa kanpoan utzita. Kanpoan utzitako lurraldean legeria zibil orokorra izango da ezargarri, Foru hau ezargarri den guztietan izan ezik». Ondoren, 7. atalean hirigunearen perimetroa zehazten da:

7. atala. «Aurreko atalean aipatutako lurralde forugabekoa hiri bakoitzaren jatorrizko hirigunearen gaurregungo lurrak eta Foru hau indarrean sar dadinean indarreko hirigintza-planen arauera "hirilur" bezala sailkatuta egon daitezzen bere albokoek osatuko dute».

Erabaki gehigarriaren bidez aurreko atalean azaldutakoa gehiago zehazten da:

Erabaki Gehigarria. «7. atalean ezarritakoaren ondorioetarako, forurik gabeko Bizkaiko Hirietako Udalek lege hau argitaratzen denetik hiru hilabeteko epea dute jatorrizko hirigunearen gaur eguneko lurrak eta indarreko hirigintza-planen arauera "hirilur" bezala sailkatuta egon daitezzen bere albokoak zehaztuko dituen planoak egiteko²⁸».

Erabaki honetan aipatutako udalek egin beharreko planoak Foru Aldundira bidali zituzten eta Bizkaiko Batzar Nagusiek 1994ko maiatzaren 4an zuzenbide zibilarren eta foru zuzenbidearen aplikazio esparruak erabat zehaztu eta horrekin batera muga horiek zehazten zituzten planoak bateratu zituen.

8. atalak, hirigintza planen geroagoko aldaketek izango duten efektua zehaztu zuen:

²⁷ «3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa», EHAA, 153 zk, 1992ko abuztuaren 7koa.

²⁸ *Ibidem.*

Familia prozesuak lege zibilen gatazkaren ikuspegitik: Gernika-Lumo udalerria

8. atala. «Hirigintza-planen osteragoko aldaketek ez dute aldaeraziko lurralde forugabearen luze-zabalera».

1992ko legearen 9.atalak ezberdintasun nabarmena erakusten du Konpilazio edo Bildumaren 4.artikuluarekin alderatuz gero:

9. atala. «Administrazioak egindako Bizkaiko udalen muga aldaketek ez dute aldaeraziko lurraldeotan ezarri beharreko Zuzenbide Zibila. Hiriren bati erantsirik dagoen antzina Elizate izandakoren bat Hiri horretatik bananduko balitz, berez eta besterik gabe berreskuratuko luke zeukan jatorrizko elizate-izaera».

Beste alde batetik, Bildumak balio eta indarrik gabe utzi zuen 1630. urteko Konkordia. Konkordia horrek Bizkaiko Hiriei baimena ematen zien euren udal barrutian Foru-Legea indarrean mantentzeko eskaera egitea eta horren alde egin zuten Elorriok (1712), Bermeok (1734), Otxandiok (1818) eta Areatzak (1825), Forua oso-osoan edo zati batean aukeratuz. Lege honek berriro jarri zuen indarrean 1630.ean konkordatutako araua, baina berori eguneratuz (10. atala).

10. atala. «Legeria zibil orokorra ezargarri duten udalerriek Foru Zibil hau euren lurralde guztian ezar dadin aukera egin ahal izango dute, 1630.eko Konkordiaren indarrez eta Konstituzioaren erabaki gehigarrietako lehenengoan eta Euskal Herriko Autonomia-Estatutuaren 10.5. atalean agintzen denaren arauera, honakook betez gero:

- a) Udalbatzarren erabakia, aurkako baino aldeko botu gehiagoaz.
- b) Bizkaiko Batzar Nagusien eritzia entzutea.
- c) Herritarrek onartzea, Udalak deitutako erreferendumean emandako botu baliiodunen gehiengoa aldeko izanda.
- d) Eusko Legebiltzarren lege bidez onartzea.

2.- *Asmo horrek aurrera egingo ez balu, bost urtegarrenera arte ezingo litzaioke berriro ekin²⁹».*

²⁹ *Ibidem.*

3/1992 legearen, 10. atalari erreparatuz, interesgarria da azken artikulua hau Gernika-Lumoko udalerriarekin lotzea. Artikulu horretan, Bizkaian salbuetsitako hiribilduei foru-zuzenbidea aplikatzeko aukera ematen zitzaien, eta Gernika-Lumok eskubide horretara eratzkitzea proposatu zuen 1998. urtean. Erabaki horren bitartez, Gernika-Lumoko udalak aukera hori egiteko zeukan eskubidea martxan jartzea adostu zuen eta prozesua errazteko asmoz erabaki bakar batean bateratu nahi zituen zeharkako ebazpen guztiak, erabakia indarrean jarriko litzateke udalak 3/1992 legearen 10. atalean agertzen diren pausoak emanez gero. Hainbestez, 1998ko irailaren 29an izandako bilkuran udalerrri osoan Bizkaiko Foru Legea aplikatzeari buruzko akordioa hartu zen³⁰, eta erabakia aurrera eramateko asmoz hurrengo pausuak jarraitu zituzten; lehenik, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibila arautzen duen 3/1992 legearen 10. ataleko prozedurari ekitea; bigarrenez, lege baldintza guztiak betetzea eta Bizkaiko Foru Zuzenbide Zibilak Gernika-Lumo udalerrri guztian aplikagarri izatea aukeratu zuten, hirugarrenez, Bizkaiko Batzar Nagusiei erabakiaren berri ematea eta honen iritzia entzutea eta azkenik, udalerriko herritar guztientzako erreferendumerako deia egitea, hauei galdetuz ea Gernika-Lumoko udalerrri osoan Bizkaiko Zuzenbide zibila aplikatzearen alde bazeuden. Orobat, erabaki hau ez zen aurrera eramanez eta herritarrei ez zitzaien inolako kontsultarik egin. Beraz, esan daiteke 1992ko legearen bidez lege bikoiztasunaren inguruan zegoen arazoa txikituz joan dela, Bizkaiko auzotasunak zehaztu direlako, hala nola, alde batetik, auzotasun foruduna eta bestetik, auzotasun forugabea. Auzotasun zibila, bestalde, Espainiako Kode Zibilaren Atariko Tituluan ezartzen den loturazko puntua da, familiari eta oinordetzari zein lege zaion aplikagarri zehazteko. Hartara, 1992ko legeak lurralde aplikazio esparruak zehaztu ditu baina halere gatazka iturri diren egoerak ez dira guztiz desagertu, batik bat eraikitze prozesuak eta hirien zabaltze bideak aurrera doazelako.

³⁰ Gernika-Lumon, 1998eko irailaren 29an izandako bilkuraren erabakia, ikusi 9.3 eranskina.

5. GERNIKA-LUMOKO UDALERRIA

5.1 *Aurkezpena eta datuak*

Bizkaiko bi legerien historia ezagutu ondoren aurretiaz azalduko praktikan jarri nahi izan da, kontuan hartuta lan honen abiaburua. Hartara, legeria bikoiztasuna argi ikusten da sistema juridiko bakoitzak di-tuen ezaugarri desberdinetan. Izatez, familia prozesuak eta horiei loturiko familia bizimodua eta ustiategiak eskualdatzeko moduak oso bes-telakoak dira bi sistemetan. Gernika-Lumok eta baita urte batzuetan Gernika udalerraren barruan egon zen Ajangizek beti izan du baserri gunea eta lan honen asmoa horietan ematen den legeria bikoiztasuna azaltzea izan da, ikusgarri gera dadin familiaren eta oinordetzaren anto-lakuntzan, hots, familiaren prozesuetan legeria bikoiztasunak duen pisua eta esanahia. Orokorrean aztertutako egoera zehaztasunez oinarrituko da ikerketa honen bidez, beraz, Gernika-Lumoko eta inguruko gune base-rritarrean aplikatzen den legeriaz jardungo da. Baserri hauen historia lortzeko asmoz Gernika-Lumoko Jabetza Erregistroan gauzatu da hu-rrengo azterketa.

Aukeratutako baserriak honako hauek izan dira:

- a) Ajangizen kokatuak³¹
 - Guernica-ibar
 - Ajanguiz

³¹ XX. mendean, Frankisten garaipen militarrekin, Ajangiz eta Erreterria auzoa Ger-nika-Lumori batzearen ideiak indarra hartu zuen agintari berrien artean. Ajangizek eze-tza eman arren, Gernika-Lumoko agintariek berriro ere bat egiteko eskatu zuten, hortaz, 1941eko urriaren 11an egindako ezohiko batzar batean, Ajangizek edozein udaletik independente izaten jarraitzeko eskaera egin zuen eta lau arrazoi aurkeztu zituen bere jarrerari eusteko. Baina arrazoi eta datu guzti horiek alferrekoak izan ziren, Ajangizeko udalak azkenean men egin behar izan ziolako Gernika-Lumori bat egiteko aginduari, orduan 1943an Ajangiz eta Erreterriaren eta Gernika-Lumoren anexo-akta egin zen. Ikusirik Ajangizeko bizilagunak ez zeudela gustora, 1991an Ajangizek (Erreterria barik) independentzia lortu zuen. Erreterria, bere aldetik, Gernika-Lumon integratu zen.

- Ajanguiz Aguirre
 - Albaliz
- b) San Pedro auzoan kokatuak (Lumo)
- Amillagas
- c) Gernikan kokatuak
- Aguirre
- d) Aranan kokatuak (Lumo)
- Tramagoiena Azertutako baserriei dagokienez hiru erakunde nagusiak aipatuko dira:
- A) Tronkalitatea: Kasu honetan familia ondasunekin lotuta agertzen da. Aldi berean jabetza mugatua da baserriaren jarraipena ziurtatzeko asmoz, hori dela eta baserriaren jabetza, familiaren inguruan, familiaren zerbitzuan eta familiaren erabilerarako da. Azkenik ondasunak familiaren inguruan ulertzen dira eta momentuko titularren gainetik daude, Kode Zibilaren ulerkeraz beste.
- B) Oinordetza: Ondasun horien jabeek oinordekoren bat aukeratu dezakete beste oinordekoak baztertuz, Kode Zibilaren bestera bada ere.
- C) Kapitulazioak: Honen barruan ñezkontza kontratuakî deituak gehienbat, zeintzutan aurrerantzean senar-emazteen arteko eta gurasoekiko harreman ekonomiko-juridikoak zehazten diren eta familia ustiategiaren oinordekoa hautatzen da foru zuzenbidean, Kode zibilean ez bezalaxe.

Hortaz, ezin argiago ikusten da bateko eta besteko sistema aplikagarri izatea zer nolako desberdintasunak dituen familia eta oinordetza prozesuetan.

Aztertutako ondasunen emaitzak hurrengoak dira:

1.- “Ajanguiz” baserriaren eskualdaketak³²

Baserrria	Data	Ezkontza kontratua	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
AJANGUIZ	22/04/1905	Bai	Bai		Forala	Bai
	21/11/1980	Bai		Bai	Forala	Bai

2.- “Ajanguiz- Aguirre” baserriaren eskualdaketak³³

Baserrria	Data	Ezkontza kontratua	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
AJANGUIZ- AGUIRRE			Bai		Forala	Bai
	02/05/1908	Ez	Ez	Ab intestato	Forala	Ez
	04/06/1985	Ez	Bai	Ez		

3.- “Albaliz” baserriaren eskualdaketak

Baserrria	Data	Ezkontza kontratua	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
ALBALIZ	22/11/1922	Ez		Bai	Forala	Bai
	19/10/1926	Ez		Bai	Forala	Ez

³³ Hirugarren eskualdaketa, Ajanguiz Gernika-Lumorekin bat eginda zegoen bitartean egin zen.

4.- “Amillagas” baserriaren eskualdaketak

Baserrria	Data	Ezkontza kontratua	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
AMILLAGAS	16/09/1929			Bai	Forala	Bai
	1879/12/13	Bai	Bai	Ez	Forala	Bai
	11/11/1923	Bai		Bai	Forala	Bai
	14/11/1932	Bai		Bai	Forala	Bai
	28/04/1943	Bai		Bai	Forala	Ez

5.- “Guernica-Ibar” baserriaren eskualdaketak³⁴

Baserrria	Data	Ezkontza kontratua	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
GUERNICA IBAR	1900/11/31	Bai	Bai	Ez	Forala	Ez
	18/05/1943	Bai		Bai	Forala	Ez

6.- “Aguirre” baserriaren eskualdaketak

Baserrria	Data	Ezkontza kontratua	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
AGUIRRE	03/06/1905			Bai	Kode Zibila	Ez

³⁴ Baserri honen bigarren eskualdaketan, Ajanguiz Gernika-Lumori bat eginda zegoen. Ajangizeko udalaren azken batzarretik (1943ko, otsailaren 12a) hamahiru egunera, Ajanguiz eta Erreterria Gernika-Lumori anexionatzearen gaineko akta egin zen.

7.- “Tramagoiena” baserriaren eskualdaketak

Baserrria	Data	Ezkontza kontratuak	Dohaintza	Testamentua	Legedia	Bazterketa
TRAMAGOIENA	1877/06/12	Bai	Bai	Ez	Forala	Ez
	11/07/1923	Bai	Bai	Ez	Forala	Bai
	09/03/1940	Bai	Ez	Bai	Forala	Bai
	04/10/1951	Bai	Bai	Ez	Forala	Bai

Zenbait datu adierazgarri azalduko dira,

DATU TAULA

Aztertutako eskualdaketak	21
Zuzenbide Foralpean emandakoak	18
- Ezkontza Kontratuak	12
- Ezkontza kontratugabeak	6
Kode Zibilaren arabera emandakoak	3
Eskualdaketarako erabilitako bideak:	
- Testamentu	9
- Dohaintza	8

5.2 Oinordetza, kapitulazioen eta tronkalitatearen azterketa

Badirudi planteatutako hipotesia egiazkoa dela, aztertutako transmisio kopuru gehiena Forua erabiliz egin delako. Eskualdaketa horien, 21etik 18 Zuzenbide Foralpean emandakoak izan dira eta 3 soilik izan dira lege Zibil erkidearen pean emandakoak.

5.2.1 Oinordetza

Oinordetzari dagokionez, oinordekoa izendatzeko orduan gehienek Bizkaiko Foruak eskaintzen dien aukera erabiltzen dute, beste seme-alabak edo anai-arrebak baztertuz. Jaraunse talde bakoitzaren barruan eta lehen-tasunezko ordena kontuan hartuz, hau da, legezko ondorengoak, aurreko ondorengoak eta alboko lerroan ondorengo direnak, testamentugileak nahitaezko jaraunseleen artean bere ondasunak askatasunez banatu ditzake, edo askatasun horretaz baliatuz testamentugileak posible du oinordeko bat aukeratzea bere ondasun guztien jabe bihurtzeko, beste oinordekoak baztertuz. Testamentugilearen askatasun hori Foruaren hainbat legetan agertzen da baina derrigorrezko baldintza moduan jartzen da baztertuak izan diren gainontzekoek “*lur zati*” bat jasotzea. Dohaintzaz edo testamentuz bai aitak zein amak bere ondasun guztiak utzi diezazkioke ondorengoetako bati, besteak baztertuz, hau da, foru zuzenbideak zehazten duen senipartea askatasun osoz erabiliz. Testamentugileak bere ondasun guztiak bere ilobari edo bere semearen ondorengoiari ustezko beharrezkoa da, zuzeneko lerroan lehenengo zegoena, hau da testamentugilearen semea aurretiaz hilda egotea. Bizkaiko Foru Berriaren IV. Legea XX. Tituluari erreparatuz, alargun geratu den ezkontidea berriz ezkonduz gero, seme-alaben artean banatu ditzakeen ondasunen inguruan hurrengo zehazten da:

«Edozein umeri edo ondorengori bigarren edo irugarren ezkontzaku-meak izan arren, itxi edo doarik emon dakioketzela, besteak alde batera itxi ta lur-zati bana, aundi edo txiki, emonik, erosi edo irabazi dan au leen Ezkontzako itune-arauen barruan egiña izan arren³⁵».

Testu bereko XI. Legeak XXI. Tituluan dio senar-emazteek egintza berberean edo desberdinetan, seme-alabaren bati, ondorengo edo aurrekoren bati guztia eman diezaioketela beste guztiak lurzati txiki edo handi batekin baztertuz. Testamentugileak bere oinordetzatik baztertzen

³⁵ DE PUXANA, P.: *Bizkai'ko Forua*. Bilbo: José Estornés Lasa, 1981.

dituen jaraunsle horiei “*lur zati txiki edo handi*” bat utzi behar die, lur zati horrek ez du inolako balio errealik edo beste edozein motatako baliorik izango baina horren helburu bakarra preteritua ez izatea da, halaber, Forruak ez du inon zehazten zenbatekoa edo nolakoa izan behar duen lur zati horrek baina ohiturari erreparatuz «*un palmo de tierra*” bezala ulertua izan da eta formula hori honetara interpretatu da, “*apartado con un árbol, una teja y un real de vellon, para significar que se les excluye no solo de toda clase de bienes raíces sino también de los bienes muebles, quedando así pagados de su legítima los herederos forzosos a quienes el testador no deja bienes algunos*»³⁶.

Aldi berean eta beste adibide honetan ikusi daitekeenez, oinordetza erabakitzen denean baserrian geratuko denari baldintza batzuk ezarri ahal zaizkio, azken hau beste kontratu bat baino ez da eta honetan jarauntsiarekin gelditzen denari gainerakoei ordaindu beharreko kopuruak zehazten zaizkio:

«Doña... mayor de edad obrando por si y además como comisaria de su citado finado esposo... usando al efecto poder testatorio relacionado ha-ce donación de esta finca y de otras mas en favor del hijo de ambos Don... mayor de edad, soltero cuya donación de la que el donante excluye y aparta a sus demás hijos y descendientes con el minimum que consiente el Fuero de Vizcaya y que ha sido aceptada por el donatario se ha verificado bajo las siguientes condiciones:

a) La donante se reserva vitaliciamente y un año mas, contado desde el día 1 de noviembre siguiente a su fallecimiento el usufructo de la mitad indivisa de las fincas donadas.

b) El donatario entregara a su madre donante en remuneración de la donación 850 pesetas dentro de dos meses.

³⁶ JADO Y VENTADES, R.: *Derecho Civil de Vizcaya*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 1. liburukia, 2004. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imprenta y Encuadernación de la Casa de Misericordia, 1923, 2. argitaraldia, 330. orr.

c) *La donante y el don... vivirán juntos formando una propiedad familiar a medias en ganancias y pérdidas y si por cualquier causa se disolviera la sociedad, partirán ambas partes las ganancias así como las pérdidas que hubiere sin perjuicio de que cada cual retire los bienes de su exclusiva propiedad.*

d) *El donatario costeará los gastos de entierro y funeral de su madre donante de la clase que ella hizo a su finado marido.*

e) *Será obligación del donatario tener a disposición de su hermano Don... hasta que este contraiga matrimonio en cuanto sito en la cocina de la casa para su uso persona³⁷».*

5.2.2 Kapitulazioak

Kapitulazioen atalari dagokionez, ezkontza kontratuetan oinarrituko da lan hau, transmisioak aztertzerakoan zuzenbide Foralpean emandako 18 transmisioetatik 12 ezkontza kontratu bidez eginda daudelako. Legegileak *mortis causa* oinordetza antolatzeke modu ezberdinak aurreikusten ditu. Kausatzaileak berak diseinatu dezake bere oinordetza eta, hala egingen ez badu, legegileak erabakiko du “*abintestato*” deritzon formularen bidez, kausatzailea hiltzean eskualdagarriak diren eskubideak eta betebeharrak nori dagozkion. Aldi berean, kausatzaileak bere hil osteko ondarea nola banatu erabakitzeke eta erabakitakoa adierazteke hainbat tresna juridiko ditu, hala nola testamentua, pertsona bakarrekoak edo ermandadean egindakoa, komisario bidezko xedapena eta oinordetza-ituna. Azken horrek, kausatzailearen eta bere oinordekoaren artean haren oinordetza arautzea du helburu. Testamentuak ez bezala, oinordetza-itunak kausatzaileari ahalbidetzen dio, hil aurretik eta bere oinordekoarekin hitzarmena egingez, bere ondarea nahi bezala administratzea. Horrela, kausatzaileak eta oinordekoak, bakoitzak bere baldintza, erreserba eta klausulak ezarriz, haren ondasunen xedea erabakitzen dute. Hortaz, oi-

³⁷ Jabetza Erregistroan egindako ikerketan, “*Tramagoiena*” baserrian egindako dohaintza baten adibidea da.

nordetza-ituna akordio bat baino ez da, hau da, kontratu bat. Oinordetza-itunaren baitan bi borondate biltzen dira, gutxienez: kausatzailearena eta oinordekoarena. Honetan biek adosten dute kausatzailearen ondarearen edo horren zati baten hil ondorengo antolaketa, eta hain justuki, adostasunaren bidez egindakoa izateak bilakatzen du ituna baliabide ezeztazina. Ituna osatzen duten alderdiek ezingo dute, euren kabuz, adostutakoa aldatu, horretarako beste kontratugilearen oniritzia beharrezkoa izango baita.

Familia-ustiategi baten jabe diren senar-emazteak zahartzen doazen heinean, haien seme-alaben artean egokiena deritzotena aukeratzen dute haren esku uzteko hauen ondarea. Gehienetan, seme edo alaba horren ezkontza izaten da oinordetza ituna sinatzeko aukeratu ohi den unea. Kontratu edo paktu bidez egiten da, oso erabiliak izan diren ezkontza hitzarmen bidez, bikote zaharrak aukeratutako seme-alaba, oinordeko izendatzen du eta ondarearen jabetza soila transmititzen dio, transmititutakoaren gozamina haientzat erreserbatuz edo jabetza osoa; eskualdaketa ordez oinordekoak kausatzaileak hil arteraino mantentzeko betebeharra bere gain hartzen du. Horrela, bikote zaharra eta ezkonberria elkarrekin arituko dira elkarbizitzan zein ustiapen lanetan, familiaren eta ondarearen buruzagitzak aldaketa era automatikoan eta berme ororekin burutu dadin. Bikote zaharra hiltzean, bikote gaztea, jadanik etxeko lanetan trebatua, ustiategiaren jabe bihurtzen da. Kausatzaileak bere hil osteko ondarearen banaketa oinordekoarekin itundu ahal izanak, elkarbizitza zein elkarlana ahalbidetzeaz gain, familia barneko ondarearen transmisio katea bermatzen du. Itun hauen helburu nagusia gehienetan nekazaritza eta abeltzaintza ustiategietan garatua, familiaren ondarea belaunaldiz-belaunaldi, osorik transmititzea da. Familiaren ondareak jabe eta buruzagi bakarra izan behar du belaunaldi bakoitzean haren zatiezintasuna babesteko eta taldearen biziraupena bermatzeko. Hori da, hain zuzen ere, oinordeko bakarraren sistemaren arrakasta, hainbat eta hainbat ordenamendu juridikok beharrezkoa dutena oinordetza banatzeko zu-

rruntasunak eragin duen minifundismo kaltegarriaren aurrean. Oinordetza-ituna, beraz, mendetan zehar familiaren ondarea belaunaldiz-belaunaldi transmititzeko erabili izan den baliabide juridikoa da, baserriaren gidaritzan beharrezkoa den ordezen prozesua gauzatu duena, hain zuzen ere. Momentuko jabeak seme edo alaba bat aukeratzen du, sexu edo adinari so eginez baino ardura berriari aurre egiteko egokitasunari erreparatuz, eta, gehienetan, hautagaiaren ezkontza aprobetxatuz, hura oinordeko izendatzen du, biok sinatzen duten itunaren muinean. Hautatuaren anai-arrebak, ordea, baztertuak izaten dira, desjarauntsiak izan gabe, familiaren ondarearen zatiezintasunak berau belaunaldi bakoitzean esku bakar batek gidatzea eskatu izan baitu ehunka urtetan. Baztertze hori ez da, beraz, anai-arreba horien eskubideak ezabatzeko tresna gisa kontsideratzen. Aukeratutako oinordekoak, kausatzailearen aginduak jarraituz, anai-arreba horien eskubideak bermatuko ditu. Foruen araudietan itunak dohaintza forma hartzen du, hau da, ituna, dohaintzaren formaz baliatzen da, Foruen garaian, hautagaiaren aldeko *mortis causa* izendapena bideratzeko. Dohaintza hauek kausatzailearen hil osterako eszena-tokia diseinatzeko negozioak dira, beraz, ez dohaintza soilak, Foruek argi islatzen duten bezala: “*dohaintza hartzaileari*” “*heredero*” deitzen diote Bizkaiko Foru Berriaren II. Legea, XXIII. Tituluan agertzen denez, “*dohaintza*” erabiliz oinordekoari transmititzen zaionari “*herencia*” esaten diote Foru Berriaren I. Legeak, XXIII. Tituluan “*dohaintzak*” efikazia galtzen du oinordekoa seme-alabarik gabe hilez gero Foruaren XVII. Legea, XX. Tituluaren arabera, eta, gainera, “*dohaintzagileen*” mantenuaz arduratzen da oinordekoa hauek hil arteraino, familiaren ondarearen jabetza formala, behintzat, berak baitu (Foru Berria III. Legea, XXIII. Titulua). Ezkontza-hitzarmena da, Foruen eskeman, ituna gordetzeko erabiltzen den dokumentuzko euskarria (Foru Berria XII. Legea, XX. Titulua). Itun hori suntsitua geratuko da oinordekoa hiltzen bada seme-alabarik izan gabe; izan ere, kontratuaren helburua kontuan hartuz, ondorengotza ezak bidea izten dio itunak martxan jarritako transmisio

kateari. Kasu honetan, beste oinordeko bat izendatzeko aukera zabaltzen dute Foruak, aurreko ituna suntsitu ondoren. Bestalde, Foruak kausatzai-learen itunaren muina den oinordekoaren aldeko *mortis causa* izendapena ezeztatzeke aukera eskaintzen diote hura esker-txarrekoa bada (Foru Berria XXI. Legea, XXXIV. Titulua), edo eta kausatzaileari eta bere ezkontideari mantenua ukatuz gero.

Horren adierazgarri gisa hurrengo jasotzen da:

«Doña...por y como apoderada de su esposo y convecino... en virtud del poder conferido el 28 de mayo de 1900 dona la finca de este numero valorada en 17.000 pesetas a su hija doña... domiciliada en esta villa con motivo del matrimonio concertado con... de la misma vecindad, aceptando la donataria excluyendo la donante a los demás hijos y descendientes con el minimum que permite el Fuero de Vizcaya, habiendose verificado entre otras condiciones reservandose los esposos donantes vitaliciamente y por dos años más el usufructo de la mitad de la finca donada estableciendose la condición resolutoria de que verificado el matrimonio se disuelve sucesión y aun cuando la tengan si fallece abintestato sin disposición lo aportado por el mismo con un descuento de arras se revertirá a su madre y en su defecto a su hermano... y en falta de la novia en iguales casos se revertirá con igual descuento de arras a sus padres y en defecto a su hermana... Con obligación de entregar a ésta 2750 pesetas³⁸».

5.2.3 Tronkalitatea

Tronkalitatea Bizkaiko foru-zuzenbide zibilaren oinarrizko erakunde-tariko bat da, familia nahiz oinordetza erakunde guztien gainean eragina duelako. Bizkaiko tronkalitatea beste foru-lurralde batzuetakoa baino zabalagoa da. Bizkaiko tronkalitateari erreparatuz esan daiteke bi osagai dituela, alde batetik, pertsonala edo subjektiboa eta bestetik, erreal- edo objektiboa. Osagai pertsonalari dagokionez, ondasunen titularr-

³⁸ Jabetza Erregistroan egindako azterketan, “Amillagas” baserriaren inguruan jasotako ezkontza-kontratu baten adibidea da.

rekin senidetasun jakin bat izatea beharrezkoa da eta senidetasun hori beti zehazten da Lur Lauan kokatutako onibarrari begira. Hori dela eta, ondasunen titularra identifikatzeaz gain, oina bera eta senide tronkeroak identifikatu behar dira. Osagai errealari dagokionez, tronkalitateak eragina du ondasun jakin batzuen gainean, ondasunok nahitaez Bizkaiko Lur Lauan kokaturiko onibarrak izan behar dira. Ondasun horiei ondasun tronkal deritze. Bizkaiko tronkalitateak bi osagai ditu eta bi osagai horiek aintzat hartuz, ondasun tronkalak dira, horien jatorriari erreparatuz hurrengo hauek:

1.- Ondorengoenganako lerroan, Lur Lauan kokatutako onibar guztiak, horiek eskuratzeko titulua edozein izanik ere, nahiz eta arrotzei eskuratutakoak izan.

2.- Aurrekoenganako lerroan eta albokoenganako lerroan, Lur Lauan kokatutako onibar guztiak, baldin eta oinordeko/eskuratzailearen oin erkidearenak izan badira eta oinordetzaren kausatzaile/eskualdatzailearenak ere bai, azken horrek arrotzengandik eskuratu dituenak barne.

Era berean, ondasun tronkalak dira trukaketa bidez eskuratutako, bai eta kostubidezko beste edozein tituluaren bidez eskuratutakoak ere, baldin eta ondasun tronkalen lekuan subrogatu badira Infanzonatuan edo Lur Lauan kokaturiko beste ondasun batzuk. Bizkaiko tronkalitatearen helburua ondarearen familia izaera babestea da. Tronkalitatearen ondorioz, onibarren titularrak horiek xedatu ahal izateko, senide tronkeroen eskubideak errespetatu behar ditu. Hortik ateratzen da tronkaliteta, izatez, xedatzeko askatasunari jarritako muga bat baino ez da.

Espainiako Kode Zibilak ez du tronkalitatearen erakundea arautu. Batzuen ustez, Kode Zibilaren 811.artikuluaren egiten zitzaion erreferentzia tronkalitatearen erakunde honi, baina interpretazioa okerrekoa zela frogatu zen beranduago. Hortaz, tronkalitatea ez da Kode Zibilean agertzen, baina, bai ordea, Aragoiko, Nafarroako eta Bizkaiko Foru zuzenbideetan.

BRAGA DA CRUZEN ustez, tronkalitatea, testamentu gabeko oinordetzaren erregela da; «es un principio de Derecho sucesorio, aplicable en la sucesión inestada de quien muere sin descendientes y, según el cual, los bienes poseídos por el decujus en concepto de propios deben ser atribuidos exclusivamente a los parientes de la misma línea de que los bienes procedan³⁹».

Bizkaiko tronkalitateari dagokionez, ez da testamentu gabeko oinordetzaren inguruko erregela bat, gaur egungo Bizkaiko legeak tronkalitatea testamentuzko zein testamentu gabeko oinordetzetan eta baita *inter vivos* egiten diren xedapenetan aplikatzen du. CHALBAUDen ustetan, «la troncalidad es una ligadura que se establece entre la propiedad raíz y la familia que la posee para que nunca salga de ella⁴⁰», eta Auzitegi Gorenak 1962. urteko abenduaren 22an emandako sententziaren bidez definizio hori baieztatzen du. Baina bazeuden BRAGAREN ideiarekin bat zetozen beste autore batzuk, hala nola, MANUEL LECANDA «*aunque estas leyes (de troncalidad) son de evidente importancia y trascendencia respecto a las condiciones de la propiedad, no puede desconocerse que desde el tiempo en que se dictaron han variado las circunstancias por completo. No se reputa hoy de tanto interés la conservación de los bienes raíces en la familia*» eta horrekin batera JOSE MARIA SCALAK egindako ikerketa batean hurrengo adierazi zuen:

«Ha de tenerse en cuenta que la troncalidad entraña una acusada limitación de las facultades del propietario, una limitación de la libertad de tráfico de casas y tierras. Un grave inconveniente para el desarrollo del crédito inmobiliario y un entorpecimiento en el proceso normal de la contratación. Es la negación de la agilidad negocial propia de nuestra época⁴¹».

³⁹ Uste hori bilduta dago in CELAYA IBARRA, A.: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales*. Madril: Revista de Derecho Privado, Editoriales de Derecho Reunidas, 1997, XXVI. lib., 109. or.

⁴⁰ CELAYA IBARRA, A.: «La troncalidad». *JADO*. Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria, 2012, 23. zk., 12.orr.

⁴¹ *Ibidem*, 13.orr.

Tronkalitatearen erakundea gaur egunean ere indarren dago Bizkaiko lege testuetan eta 1452 eta 1526ko Foruak egin zirenean zeukan indar eta garrantzi antzekoarekin, Foruek arrotzengandik eskuratutako ondasunak ere ondasun tronkaltzat hartu baitzituzten.

6. JURISPRUDENTZIA

Jarraian ikusi daitekeenez, bikoiztasun horrek berebiziko eragina izan du familia eta oinordetza prozesuetan. Hartara eta forulege webgunean kontsulta daitekeen jurisprudentzia bildumatik jarraikakoak atera dira, esandakoaren lekuko eta testigantza:

6.1. 1874. urteko ekainaren 8ko AGE

Aztertutako epai honetan testamentuaren eragingabetasuna edo deuseztasuna eskatzen da. Testamentugileak, notario aurrean 1869ko abenduaren 28an egiletsi zuen testamentua Madrilen eta 1870. urteko otsailaren 26an hil zen. Testamentuan jaraunsle unibertsal izendatu zuen D. Juan de Casuso (demandatua), azken honek herentzia onartu zuen baina sententzia honen demandatzaileak testamentuaren deuseztasuna eskatzen du, jaraunsle unibertsal hori ez delako tronkaleko senidea eta horren ondorioz ezin daitekeelako jaraunsle unibertsala izan testamentugileak Lur Lauan zituen onibarren gainean. Sententzian agertzen zen moduan:

“La casería llamada Mendivil-Aurrecoa y sus pertenecidos, señalada con el núm. 66, radicado todo en la anteiglesia de Lejona, jurisdicción de aquel Juzgado, donde regía la jurisdicción foral de Vizcaya; y que D. Juan Casuso no era respecto de dichos bienes pariente tronquero de la finada Doña María Daries, siéndolo de la misma dentro del cuarto grado civil la demandante Doña Teresa Cerragería; por lo que, y fundándose, como puntos de derecho, en que según la disposición terminante de la ley 18, tít. 20 y otras de los fueros, los bienes raíces del infantazgo no podían dejarse por donación entre vivos ni por testamento a ninguno que no

fuese pariente tronquero, pidieron se declarase nulo o rescindido el testamento de Doña María Daries en la parte que instituyó heredero al referido Casuso en cuanto a la casería Mendivil-Aurrecoa y sus pertenecidos, situada en la anteiglesia de Lejona, y que corresponde y pertenece sin perjuicio de otro de mejor derecho a la Doña Teresa de Cerragería; condenando en su consecuencia a D. Juan Casuso a que se la entregue, con los frutos o rentas producidos o debidos producir desde la muerte de la mencionada Doña María Daries Villachica, y las costas”.

Lanean aztertu denari erreparatuz ezin daiteke Lur Lauan kokatutako ondasun tronkal bat oinordeko ez den bati eskualdatu eta eginez gero tronkaleko senide horrek “*saca-eskubidea*” izango du eskualdaketa horren aurka.

6.2. 1987. urteko apirilaren 7ko AGE

Epai honetan notario aurrean egiletsitako testamentu batean ezarritako klausulak aztertzen dira. Demandatzailea “Ellaury-Emeticoa” baserriaren eta honi dagozkion lurren jabea da bere gurasoengandik jasotako dohaintzaren bidez, dohaintza hartan baldintza batzuk jasotzen ziren ezkongabe zeuden semeen harremanen inguruan eta eskubide horiek denboran zehar mantenduko ziren egoerak bere horretan jarraitzen zuten bitartean. Eskubideak hurrengoak ziren, hala nola, lehenengoa, onibarraren gaineko gozamen pertsonala eta bigarrenez, dohaintzan emandako baserriko hiru logelen okupaziorako eskubidea, baina bigarren eskubideaz baliatzeko derrigorrezkoa zen baserrian eta baserriarentzako lan egitea. Demandatuak ez zuen baldintza hori betetzen Astilleros Españoles de Bilbao enpresarako lan egiten zuelako; hori dela eta, epaitzan zehazten den moduan, “*Al citado don Luis Olivares le asiste únicamente el derecho de habitación de una de las alcobas, y de las tres que ocupa, por serle aquélla suficiente para sus necesidades, cuya habitación se determinará en ejecución de sentencia*”.

6.3. 1994. urteko apirilaren 18ko PEE

Epai honetan eztabaidatzen den gaia ondasunen foru-komunikazioaren aplikazioa da. Alderdi demandatua eta bere senarra Erandion bizi dira eta demandatuak dio udalerrri hori lurralde foruduna dela eta beraz, ondasunen foru-komunikazioa aplikatzen dela, hori horrela izanez gero, honen senarra ere prozesura ekarri beharko litzateke. Alderdi demandatzaileak ostera, senarra prozesura ekartzea ez dela beharrezkoa zehazten du, ez dagoelako ondasun gaineko foru-komunikaziorik eta hori arrazoitzeko hurrengo oinarriak erabiltzen ditu:

“El día 28 de Enero de 1940 se produce en su parte fundamental los actos significativos de la anexión de Erandio a Bilbao, dicha anexión a Bilbao se hizo sin pérdida de la legislación foral (...) por ello con anterioridad a la compilación de Bizkaia del año 1959 la anteiglesia de Erandio conservó el Fuero. La compilación de Bizkaia de 1959, modificó el territorio foral en dos sentidos, y entre ellos, Erandio (además de Abando y Begoña) pierden su foralidad (...). “En este sentido interesa destacar (siguiendo al autor D. Adrián Celaya), los vecinos de Erandio que contrajeron matrimonio antes de 1959, se rigen en cuanto al sistema de bienes por la Comunicación Foral”. “Erandio perdió el Derecho Foral con la Compilación de 1959, por lo en ella dispuesto en el Art. 2 y la disposición transitoria 2”, derecho Foral que no recuperó por su desanexión de Bilbao en 1983”. Resulta probado que D. Ismael nació según la certificación de matrimonio en Bilbao el día 7 de Septiembre de 1947, datos que salvo en el día corrobora el Ayuntamiento de Erandio, Dña. Maria Josefa nació el día 21 de Noviembre de 1947 en Erandio, y ambos contrajeron matrimonio el día 16 de Octubre de 1976; Existe por tanto un doble motivo para estimar que el matrimonio se rige por el sistema establecido en el Derecho común, primero, porque al momento de contraerlo el esposo tenía vecindad de Derecho común (Bilbao) y además la esposa, era ciudadana y residente en Erandio, que a la fecha de contraer matrimonio era territorio sometido a Derecho común, si tenemos en cuenta, que los efectos del matrimonio se rigen por la Ley personal Co-

Familia prozesuak lege zibilen gatazkaren ikuspegitik: Gernika-Lumo udalerria

mún de los cónyuges al tiempo de contraerlo, y por ello en principio sometido al régimen genérico de ganancialidad, persistente, entendemos, al no haberse modificado, estos efectos, ni sometido las partes mediante las oportunas capitulaciones a un régimen diverso”.

Horrenbeste, epaitzan ondorioztatzen da ez dagoela ondasunen foru-komunikaziorik.

7. ONDORIOAK

Lan honetan Euskal Herrian eta bereziki Gernika-Lumoko herrian ematen den lege bikoiztasuna azaltzea izan da helburu. Asmoa bi lege horien sorrera eta urtetan zehar zer nolako elkarbizitza izan duten aztertzea izan da, horretaz aparte horiek eragin dituzten gatazkak eta segurtasunik eza ere aipatu dira. Autore ezberdinen iritziak ere testuan bateratu dira lege gatazken arazoaren inguruan azalpen argiago eta zehatzagoa emateko asmoz. Lanean zehar erabilitako datuak lanaren hasierako helburua aurrera eramaten lagundu dute eta gainera hasierako hipotesia baieztatu dute. Hortaz, ikusi da Gernikan Kode Zibila aplikatzen dela eta Lumon, oster, historian zehar izan duen elizate izaeraren ondorioz, Bizkaiko Forua aplikatu izan dela eta gaur egun ere aplikatzen jarraitzen dela.

Lege bikoiztasun honen inguruan datu historikoak ere erabili dira, bai orokorrean eta baita Gernikako historiari zehazki lotutakoak, hala nola, Gernika eta Lumok urteetan zehar izan zituzten amaigabeko gatazkak 1882an udalerrri bakarra sortu zuten arte.

1959. urteko Konpilazioan eta 1992ko uztailaren 1eko Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzko legeetan oinarrituz Euskal Herriko Foru zuzenbidean sortutako arazo honi eman dioten tratamendua ere azaldu da. Halaber, 1959. urteko Konpilazioak Euskal Herriko zuzenbide zibil forala Espainiako Kode Zibilaren barruan kokatzea zuen helburu; gatazkari konponbidea emateko lege bakoitzaren ezarpen eremuak ze-

haztu behar ziren eta horretarako hiri lurrak eta landa lurrak bereizi behar ziren eta lege honek horretarako irizpide tekniko batzuk ezarri zituen. Hori dela eta, Kode Zibila zuzenbide ordeztaille moduan erabili zen Bizkaiko eta Arabako Foru Zuzenbide Zibilarekiko.

Hala eta guztiz ere, aurrekoa balio gutxikoa da baldin eta hori lotzen ez bada Gernika-Lumon bizi izan den egoerarekin, familia eta oinordetza prozesuetan etengabe sortu baitira bi sistema juridiko desberdinen arteko gatazkak, familia eta oinordetza erakundeak aplikatzerakoan nabarmendu direnak. Horretan izan da erakusgarri oso Jabetza Erregistroan egin den miaketa lana.

Azterketaren ondorio nagusiak hurrengoak dira:

Lehenengoa. Bizkaiko hirietan, zehatzago esateko 14 hiritan eta horien artean Gernikan historian zehar eta baita gaur egun nabaria den lege bikoiztasuna eman da zuzenbide pribatuaren aldetik. Honen adibide hurrengo esaldia Gernikako-Lumoko udalerrinari dagokionez:

«(...) los inconvenientes que ofrece este dualismo no sólo dentro de una población sino también de una provincia, en la que no puede haber diferencias fundamentales entre las Villas y las Anteiglesias, tan unidas y contiguas las unas á las otras, que hay calles cuyas aceras de un lado pertenecen á Guernica, y las del otro á Luno, siendo la Villa un verdadero rectángulo, rodeado por todas partes por territorio de la Anteiglesia»⁴²; «El Sr. Quintana hizo observar, que para otorgar ciertas escrituras, los vecinos de esos 14 pueblos no sólo tendrían que acreditar su vecindad, sino la calle en que habían vivido, y el Sr. Plaza le manifestó, que ni esto era bastante, pues habiendo calles en las cuales regían las dos legislaciones, una en cada acera, como pasaba en Guernica y Luno en la calle 8 de Enero, en cuya calle, en un lado debe aplicarse el Código Civil, por su jurisdicción antigua de la Villa de Guernica, y el Fuero en la acera de enfrente, por serlo de la anteiglesia de Luno»⁴³.

⁴² CELAYA IBARRA, A.: *El derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil...* op. cit., 198. or.

Bigarrena. Hiri hauen Lur Lauan eta Gernikaren kasuan, Lumon, elizatea den heinean legedi forala aplikatu izan da. Aipatu beharra dago autore batzuk ez daudela bi legediak aldi berean aplikatzearen alde eta horren adibide ditugu DE LA PLAZA eta JADO; hauen ustetan Bizkaia osorako legedi bakarra ezartzea zen egokiena, baina arazoak ikusirik, herri bakoitzarentzat bat bakarra lortzea dute helburu.

Hirugarrena. Hiri hauen perimetroak ez zehazteak Foruaren aplikazio guneen murriztea suposatzen du.

Laugarrena. 1992ko uztailaren 1eko legeak, zuzenbide foralari nola-baiteko abantaila edo baikortasuna ekar diezaioke, zenbait irtenbide zehazten dituelako aurretiaz sortutako arazoak konpontzeko helburuarekin. Hori dela eta, aipatzekoa da lege honen 10.artikuluak Gernika bezalako hiriei ematen dien aukera, lurralde forudunetan aplikatzen den legea hiriotan ere aplikagarri izateko. Hortaz, nahi izanez gero foruaren alde egin daiteke apustua eta hemendik urte batzuetara forudunek duten eskubideez baliatu ahal izango dira. Gernika-Lumok horretarako bidea hasi bazuen ere, ez zuen amaiera arte burutu.

Bosgarrena. Bikoiztasun horrek dakar Gernika-Lumoko herritarren artean eta familia eta oinordetza prozesuetan bi legeria desberdin aplikagarri izatea oinordekoa izendatzeko orduan edota senar-emazteen arteko araubide ekonomikoa zehazterakoan.

Seigarrena. Etorkizunari dagokionez, Foru zuzenbidearen gaineko erregulazioa ez da hor amaitzen, 2012.urtean Euskal Lege Zibilaren proposamena aurkeztu baitzen Eusko Legebiltzarrean eta horren berrikuntzarik nabarmenena euskal auzotasun zibilaren auruketari dagokiona da, premiazkoa zen auzotasun erkide bat izatea Euskal Autonomia Erkidegoaren herritar guztiontzako. Testuaren helburua da proposamen horrek indarra har-

⁴³ *Actas de las sesiones celebradas por la Comisión especial de Codificación de Vizcaya.* (1899-190

tzea Euskal Autonomia Erkidego osoan. Hiru liburutan banatzen da, I Liburuari dagokionez ondareari buruzko zuzenbidearen printzipioak adierazten ditu. II Liburuak ordea oinordetzak arautzen ditu. Aiarako forua eta Bizkaiko tronkalitateari dagozkion arauak salbuetsita, Euskal Herriko oinordetza beti izan da ohiturazkoa. Testuak oinordetza kasu ororentzako idazkera bera egitea erabaki du, eta modu horretan testamentu seniparte bakarra ezartzen du, ondarearen heren batena, Euskal Autonomia Erkidego osorako, salbuespen bakarra Aiarako kasua da, honetan erabateko askatasuna oinarri delako. Proposamenak komisarioaren bidezko testamentuaren gainean ñabardura batzuk gehitzen ditu. Aurrekoarekin batera testuak bizirik mantentzen du Bizkaian tronkalitatearen erakundea eta foru sakaren egikaritzea ondasun tronkalen besterentzean. Bigarren liburuan ere modu esanguratsuan batzen da Aiarako testua, gipuzkoar baserriaren oinordetzari buruzko arauak garatzen dira eta oinordetza-itunak ere hedadura handiz arautzen dira. Azkenik, III. Liburuan ezkontza bitartezko ondasunen araubidea zehazten da Euskal Herritar guztientzat.

Beraz, baliteke urte batzuk barru Gernika-Lumoko hiriak Kode zibilaren aplikazioa alde batera lagatzea eta Euskal Foru Zuzenbide Zibila ezartzea udalerrri guztian eta urteetan zehar eman den lege bikoiztasunari amaiera ematea. Zalantza izpirik gabe oso bestelakoak izango dira, halakoa gertatuz gero, Gernika-Lumon zuzenbide pribatuaren bilakaera eta ondorioak, hitz batez esateko, Gernika-Lumoko herritarren etorkizuna.

8. BIBLIOGRAFIA

8.1 *Liburuak*

Actas de las sesiones celebradas por la Comisión especial de Codificación de Vizcaya. (1899-1900). Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasi-koak Bilduma, 2. liburukia, 2004.

AGIRREAZKUENAGA ZIGORRAGA, J.: *Diccionario biográfico de los parlamentarios de Vasconia.* Gasteiz: Eusko Legebiltzarra / Parlamento Vasco, 2007, I. liburukia.

ALLENDE SALAZAR, A.: “El Dualismo en la Legislación Civil de Vizcaya”. In Celaya Ibarra, A.: *El Derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil.* Bilbo: Academia Vasca de Derecho/ Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco/Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 7. lib., 2007. 183-205. orr.

CELAYA IBARRA, A.: *Conflictos de Leyes Civiles en Vizcaya,* tesis doctoral. Bilbo, 1965.

— *Compilación de Vizcaya y Álava* en ALBALADEJO, M.: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales.* Jaén: Edersa, 1978, XXVI. liburukia.

— *Ley sobre el Derecho Civil Foral del País Vasco* en ALBALADEJO, M. y DÍAZ ALABART, S.: *Comentarios al Código Civil y Compilaciones Forales.* Jaén: Edersa, 1997, XXVI. liburukia.

— *El derecho Civil de Vizcaya antes del Código Civil.* Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 7. liburukia, 2007.

— “La troncalidad”. *JADO.* Zuzenbidearen Euskal Akademiaren Aldizkaria, 2012, 23. zk., 7-13. orr.

ENSUNZA ARRIEN, M.: *Bizkaiko Herrien Monografiak.* Bilbo: Bizkaiko Foru Al-
dundia, 2003.

ITURRIARTE MARTÍNEZ, A.: *Errenteria, Gernika Lumoko Historia Bilduma V,* Ger-
nika, Gernika Zaharra taldea eta Gernika-Lumoko Udala.

ITURRIZA Y ZABALA, J. M.: *Historia General de Vizcaya*. Valentzia: Librerías Paris-Valencia, 2000.

— *Historia General de Vizcaya y Epítome de las Encartaciones*. Bilbo: Librería Arturo, 1967.

JADO Y VENTADES, R.: *Derecho Civil de Vizcaya*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 1. liburukia, 2004. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imprenta y Encuadernación de la Casa de Misericordia, 1923, 2. argitaraldia.

HORMAECHE, R.: *Leyes civiles de Vizcaya*. Pamplona: Analecta, 2002. Faksimile-edizioa, Bilbo: Tipografía Católica de Jose Astuy, 1891.

DEL PALACIO SÁNCHEZ, V. et al.: *Historia de Lumo*. Gernika: Gernikako Udala, 1999.

DE LA PLAZA Y SALAZAR, C.: *Territorios sometidos al Fuero de Vizcaya en lo Civil*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, Colección Clásicos del Derecho Vasco / Euskal Zuzenbidearen Klasikoak Bilduma, 5. liburukia, 2006. Faksimile-edizioa, Bilbo: Imp. Echevarría, 1899, 2. argitaraldia, I. eta II. tomoak.

DE PUXANA, P.: *Bizkai'ko Forua*. Bilbo: José Estornés Lasa, 1981.

RUIZ SALAS, J. M.: *El derecho civil foral de Vizcaya y la época actual*. Zumarraga, 1956. 6. zk., 11-13 orr.

URRUTIA BADIOLA, A. M.: *Código, Compilación y Fuero Civil. Elementos para una historia del Derecho civil foral vasco (1876-1992)*. Bilbo: Academia Vasca de Derecho / Zuzenbidearen Euskal Akademia, 2013.

8.2 Webguneak

Auñamendiko Eusko Entziklopedia.

Forulege, euskal zuzenbide zibilaren webgunea. www.forulege.com

8.3 Lege-testuak eta lege-proposamenak

«Fuero Viejo (1452)» en *Legislación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Excma. Diputación Foral de Bizkaia, 1991, I. lib., 105-215 orr.

«Fuero Nuevo (1526)», *Legislación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Excma. Diputación Foral de Vizcaya, 1991, I. lib., 217-390 orr.

«Proyecto de apéndice (1900), Proyecto de apéndice de la Comisión Especial Codificadora», en *Legislación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Excma. Diputación Foral de Bizkaia, 1991, I. lib., 411-427 orr.

«Ley de 30 de julio de 1959 sobre Compilación del Derecho Civil Foral de Vizcaya y lava» en *Legislación Foral de Bizkaia*. Bilbao: Excma. Diputación Foral de Bizkaia, 1991, I. lib., 447-463 orr.

«3/1992 Legea, uztailaren 1ekoa, Euskal Herriko Foru Zuzenbide Zibilar buruzkoa», EHAA, 153. zk. 1992ko abuztuaren 7koa.

«3/1999 Legea, azaroaren 16koa, Euskal Herriko Zuzenbide Zibilar buruzko Legea aldatzekoa, Gipuzkoako Foru Zibilar dagokionez», EHAA, 249 zk., 1999ko abenduaren 30ekoa.

«Euskal Lege Zibilaren proposamena», www.forulege.com-en argitaratua.

9. ERANSKINAK

9.1 Gernika-Lumoko mapa⁴⁴

⁴⁴ Euskal Herriko Foru-Zuzenbide Zibilar buruzko, uztailaren 1eko 3/1992 Legearen 7.artikulu eta lehenengo erabaki gehigarrian agertzen dena kontuan hartuz, 1994ko maiatzaren 4an ospatutako bileran adostu zuten Gernika-Lumoko mapa. Gernikari dagozkion kaleak hurrengoak dira besteak beste, Barrenkale, Goienkale, Artekale, Azoka Kale, Santa Maria eta Ocho de Enero kalearen erdia. Gernika-Lumo osatzen duten beste

9.2. *Gernikako Carta Puebla, 1404. urteko apirilaren 28koa*⁴⁵. *En el nombre de Dios Padre e Hijo y Espíritu Santo, que son tres personas e un Dios verdadero que bive e regna por siempre jamás e de la vienaventurada Virgen gloriosa Santa María, su madre, a quien nós tenemos por señora e por abogada en todos nuestros fechos, e a onra e serbicio de todos los santos de la corte celestial, amén.*

Sepan cuantos este previllejo vieren cómo yo, don Tello, conde de Vizcaya e de Castañeda e señor de Aguilar e alferes mayor del rey don Enrique, con plaser de todos los vescaínos fago en Gernica, de partes de Luno, población e villa cual disen el puerto de Gernica e de franqueo a vós, los pobladores d'este lugar, que seades francos e libres por siempre jamás vós e los que de vós vernán ende todos los pechos e de todos [vuestros], tanvién de fonsaderas e de emiendas e de oturas e de mañerías como de todas las otras cosas; que ayades cumplidamente el fuero de Logroño e que bos mantengades por él noblemente e vien en justicia e en derecho así en omecidios e en caloñas e en todos los otros buenos usos e costumbres como el fuero de Logroño manda; e que ayades alcaldes e jurados e escrivano público e sayón e oficiales vuestros vesinos e non otro ninguno porque cumplades de derecho a todo ome que vos lo quiera demandar, e con alçada que pueda tomar la parte que se agrabiare para ante los alcaldes e omes buenos de Verneo e dende afuera para ante mí.

Otrosí, mando e tengo por vien que ayades a vuestra vezindad el solar de Juan Peres de Dondis e el solar de Pero Ivañes de [Dondiz] de Guernica, el solar de Martín Saes Sasarpo e el solar [de Pero Ivañes Dondiz Ezquerria de Guernica e en Saraspe] el solar de Juan Peres e el solar de Pero Peres d'Iturbe e el solar de Juan Martines d'Urrecho que es en Urrechua, e el solar de Pero Peres Alonso e el solar de Pero Martines d'Iraçabal e en Bideguren el solar de Juan el Bueno.

kaleak Lumoko lurrak dira eta udalerrri bien batzearekin bata eta bestearen kaleak batera dauden elkarren artean nahasturik.

⁴⁵ Gernika hiriarren Carta Puebla da, honetan herritarrei eman zitzaizkien pribilegioak agertzen dira. Testu honen iturria: .

Otrosí, mando que sea vuestra vezindad el mortuero de Saraspe y el solar de Juan Peres d'Echaspe e el solar de Juan Domingues e el solar [de Peidro el rementero e el solar de Sancho d'Ochaar en Vesquiça] e el solar de Sancho Martines, e en Bemandaro el solar de Sancho Martines e en Bemandaro el solar de Martín Martines e en Uribarri el solar de doña Toda e el solar de Pero de Mugica e en [Gorriño] el solar de [Pero Urtíz de Garay e el] solar de Sancho de Garay e el solar de Juan Bueno de Garay, e en Urrechua el solar del [tornero] de Iturralde e el solar de Juan Balça e en [Mengoça el solar de Juan Martínez e el solar de] Juan Martines de [Gorguena] e el solar de doña Sancha e el solar de Lope e el solar de Pero Domínguez de [Arribalçaga] e el solar [de Juan de Idequeliz e en Ibenarriaga el solar de Martín Sanches de Gogena] e el solar de] Juan Martines de Gogena.

E otrosí, yo, el sobredicho conde, por vos faser bien e merced a vós los mis pobladores [de la mi villa de Gernica, así a los que agora ý [sodes como] a los que morarán de aquí adelante, dovos por siempre jamás por vuestros términos a vuestra vezindad de Busturia al monte de Aprais por los [caminos de Bizcarrá a Mechica e dende a Santa María de] Ibalçaga e dende a Guerequis e dende a la ferrería de Morga e dende a Arechalaga e a Ocheta e dende a [d'Aldana] e dende a [Uhua e dende a Bardian e dende a la rueda de Unda e dende a Ajona e dende a Alvis e dende a Çuberoe]ta e dende a Axtorquia e dende a las cabas de Gatisburu e a la ferrería d'Oma e dende a Acheaga.

Otrosí, vos franqueo e quito que seades quitos [e francos de todos pechos e derechos e servicio e servicios que a mí el dicho] conde me abríades, que me non dedes nin paguedes desd'el día de Pascoa primera que verná de la era d'este privilejo en ocho años complidos primeros siguientes, así como viene [uno ante otro por la era d'este pre]villejo. E otrosí, mando que no dedes portadgo ni trentadgo ni emiendas en ninguno de los mis logares.

Otrosí, [vos otorgo e mando que en Portuendo ni en la barra de Mundaya ni en toda la canal de ý] fasta mi villa de Gernica pecio ninguno de

nabe nin de vaxel nin de otra mercadería que venga o vaya d'este lugar de Gernica [o salgan con sus mercaderías mostrando recaudo que viene] a esta villa de Gernica o que vaya d'ella pagando las costumbres e los derechos míos, e que no sean retenidos nin embargados por razón de pecio. E dovos más que [ayades por mercado] cada semana el miércoles con los cotos e caloñas que se contienen en el vuestro fuero. [Otórgovos que ayades] las iglesias de usa [a vezindad] para los hijos de vuestros vesinos [ansí como] son las de Vermeo e las de Vilvao.

Otrosí, mando e tengo por bien que no ayades aplazamiento alguno nin sigades aplazamientos que yo vos mandase faser por ninguna manera, e que ayades e vos mantengades vien en justicia e en todos los buenos usos e costumbres en todas las cosas así como son aforados e prebillejados de los señores [antecesores e confirmados de] mí los de las mis villas de Vermeo e de Vilvao.

Otrosí, tengo por bien e mando que ayades e tengades el monasterio de San Pedro de Lumo con todos sus diesmos e pertenencias [e derechos] que al dicho monasterio pertenecen para siempre jamás a vuestra vezindad; e vós, que dedes e paguedes de renta de cada año por el dicho monasterio e iglesia mil e ochocientos maravedís [a mí o al que] la mi merced vos embiare mandar que gelos dedes los dichos mil e ochocientos maravedís de cada año. Otrosí, mando e tengo por vien que no aya compra nin venta ni regatería alguna de Busturia [fasta] en Oca salvo en esta mi villa de Gernica. Otrosí, mando que el camino que va de Durango para la mi villa de Vermeo, que vaya por esta mi villa de Gernica [e no por otro lugar sinon por esta mi] villa de Gernica.

E todas cosas e franqueças e libertades dó e otorgo por mí e por los que de mí venieren a vós, los pobladores de la dicha villa de Gernica, así a los que agora [son e moran como a los que] morarán de aquí adelante e a los que fueren vesinos que después de vós vernán, que los ayades vien e cumplidamente para siempre jamás [e que vos sean bien guardados e bien e cumplidamente; e] prométovos yo en mi verdad buena de vos goardar e mantener vien e lealmente en todos los vuestros usos e fueros e

derechos e [libertades que yo a vós fago e sobredichos son, e de] vos non menguar nin ir contra ello en ningún tiempo [del mundo; e defiendo firme]mente que alguno ni algunos [no sean osados de bos embargar nin menguar ni contrariar por ninguna razón que contra estos] fueros e mercedes e libertades que vos yo fago nin contra parte d'ellos sean, e mando e ruego [a cualquier que de mí verná después de mios días que vos guarden e vos mantengan todos estos fueros] e libertades e mercedes que vos yo fago por siempre jamás vien e cumplidamente así como sobredicho es e en este previllejo se contiene.

Otrosí, [mando e tengo por bien que seades francos e quitos en] todo el mi Señorío e en todos los mis lugares de portadgos e de peages e de emiendas e de oturas e de cueças e recoaje e de [vista e de anclage de todas las mercaderías que truxéredes e llevjáredes también por la mar como por tierra en cualquier manera.

E mando e defiendo firmemente a todos los concejos, alcaldes, jurados e jueces e justicias, alguasiles [e prestameros, merinos] e prevostes e portadgeros e otros oficiales cualesquier de las mis villas e lugares del mi Condado de Vizcaya e de todos los otros mis lugares e señoríos que este mi previllejo [o el traslado dél signa]do de escrivano público vieren o cualquier o cualesquier d'ellos, que vos guarden e amparen e defiendan con estas mercedes e libertades que vos yo fago cada uno d'ellos en [todo e por todo como sobredicho es] ; e a cualquier o cualesquier que contra estas mercedes e libertades que vos yo fago o contra parte d'ellos vos pasasen o quisiesen pasar para los quebrantar o para las menguar en todo [ni en parte, abría] la mi ira e pesarme ya de corazón e pecharme ya cada uno mil maravedís d'esta moneda que agora corre e a los mis vasallos de la dicha mi villa de Gernica, así a los que [agora y moran como a los que mo]raren de aquí adelante por siempre jamás, todo el daño e el menoscavo que por ende rescibiesen doblado, e demás a los tales que contra este previllejo e contra parte dél quisiesen [ser e passar] para los quebrantar e mengoar en todo o en parte me tomaría por ello e los cuerpos e lo que ovieren.

E porque todo esto es mi voluntad de lo faser, mandeles dar este mi previllejo [a los dichos mis] vasallos pobladores de la dicha mi villa de Gernica sellado con mi sello de cera colgado pendiente, escrito en pergamino de cuero, en el cual previllejo escribí mi nombre.


Dada [esta carta e previllejo] en la villa de Orduña, veinte e ocho días de abril, era de mil e cuatrocientos e cuatro años.

Yo, Francisco Fernández, la fis escribir por mandado del conde de Vizcaya e de Castañeda.

Yo, el conde de Vizcaya.

9.3. Gernika-Lumoko udaletxearen Osoko Bilkuran hartutako erabakia⁴⁶.

BAKEAREN HIRIA
CIUDAD DE LA PAZ


Gernika-Lumo Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
EITXETA, SEKRETARIO GENERAL DEL
AYUNTAMIENTO DE GERNIKA-LUMO

CERTIFICO: Que el Ayuntamiento Pleno adopto el siguiente acuerdo en sesión celebrada el día 29 de septiembre de 1999:

4º.- ACUERDO RELATIVO A LA APLICACION DEL FUERO CIVIL DE BIZKAIA A TODO EL TERMINO MUNICIPAL.

El Ayuntamiento Pleno, examinado el informe de la Secretaría municipal y tras el informe favorable de la Junta de Portavoces

BAKAREN HIRIA
CIUDAD DE LA PAZ

IGNACIO JAVIER ETXEBARRIA
EITXETA, HAIZKARI, GERNIKA-LUMOKO
UDALEKO IDAZKARI OROKORRA.

EGIAZTATZEN DUT: Udaltzaza Osoak 1998.eko irailaren 29an izandako bilkuran honako erabakia hartu zuen:

4.- UDALERRI OSOAN BIZKAIO FORU LEGEA APLIKATZEARI BURUZKO AKORDIOA

Guzti hori kontuan izanik, Osoko Bilkura osatu Hizkuntzen erakundearen ondoren eta ikusirik Talden aldeko iritziren ondoren hartu da.

ERABAGITEN DAU:

Lehenengoa: Euzko Herriko Foru-Zuzenbide Zibila arautzen duen 1992.ko Foru Legeitzarretako Legaren 10. artikuluko biderketari onartzea.

Bigarrena: Lege biderketari onartu ondoren Gernika-Lumo udalerri guztian dagitako aplikazioa.

Hirugarrena: Aurriko erabakian hain erabakia hartu da Erandien herriaren erantzun.

Laugarrena: Udaltzazaren herri guztian ere erabakia hartu da eta Gernika-Lumo udalerri guztian Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila aplikatu da.

ACUERDO:


Primero: Iniciar el procedimiento previsto en el artículo 10º de la Ley 1/1992 del Parlamento Vasco, de Derecho Civil Foral Vasco.

Segundo: Optar por la aplicación del Fuero Civil de Bizkaia en todo el término municipal de Gernika-Lumo, cumpliendo a tal efecto los requisitos legalmente establecidos.

Tercero: Comunicar los anteriores Acuerdos a las Juntas Generales de Bizkaia a fin de eleccion el número de audiencia legalmente previsto.

Cuarto: Convocar una consulta popular entre los vecinos del municipio, según lo dispuesto en la legislación aplicable, en los siguientes términos: a) Que de acuerdo con la aplicación del Fuero Civil de Bizkaia en todo el

BAKEAREN HIRIA
CIUDAD DE LA PAZ


Gernika-Lumo Udala
Ayuntamiento de Gernika-Lumo

término municipal Gernika-Lumo?

Zuzenbide Zibila aplikatzea gura duzu?

Quinto: Aprobada por los vecinos de este Municipio la aplicación del Fuero Civil de Bizkaia en todo su término municipal, según lo dispuesto en el anterior Acuerdo, eleva los correspondientes actuaciones al Parlamento Vasco a fin de que este a su vez apruebe mediante Ley la aplicación del Fuero Civil de Bizkaia en todo el término municipal de Gernika-Lumo.


Sexto: Delegar en el Alcalde-Presidente de la Corporación la realización de cuantos actos sean precisos para la ejecución de los anteriores acuerdos, así como la organización de actuaciones informativas para los vecinos previamente a la consulta, dando cuenta al Pleno de los mismos.

Seigarrena: Aurriko erabakian bete eta Udaltzazaren herri guztian Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila aplikatu da. Euzko Legeitzarretari hori jakinarazten, jokoan biderketari onartu eta Lege onartu dugan Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila Gernika-Lumo udalerri guztian aplikatu da.

Seigarrena: Aurriko erabakian bete eta Udaltzazaren herri guztian Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila aplikatu da. Euzko Legeitzarretari hori jakinarazten, jokoan biderketari onartu eta Lege onartu dugan Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila Gernika-Lumo udalerri guztian aplikatu da.

Y para que conste, expido la presente, de Orden y con el Vizado del Sr. Alcalde-Presidente, en Gernika-Lumo, a 19 de julio de 1999.

Vº Bº
Sr. ALCALDE



Etia horrela erabaki gura duzu, eta Udaltzazaren herri guztian Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila aplikatu da. Euzko Legeitzarretari hori jakinarazten, jokoan biderketari onartu eta Lege onartu dugan Bizkaiko Foru-Zuzenbide Zibila Gernika-Lumo udalerri guztian aplikatu da.

⁴⁶ Osoko Bilkuraren erabaki honetan ikusten da udalerrri osoan Bizkaiko Foru Legea aplikatzeko akordioa hartzen dela, herriari horren gaineko kontsulta eginez.